

## Herririk Herri | 5

Abadiñoko trinketean BTT zentroa  
zabalduko du Amankomunazgoak



## Berbaz | 8

R. Bermejo: Ez naiz Mugarrara joaten ez  
dudalako dauden lubakietatik pasa gura

## Azaroaren 25a Gehigarria



## ATXONDO | 4

# Atxondoren sorreraren 50. urteurrena gogoratuko dute




Fusioa gauzatzeko batzordean  
parte hartu zuen Victor Basetak.  
Saso hartan, zinegotzia zen  
Axpen, eta Atxondon ere  
zinegotzi jardun zuen  
lehenengo legegintzaldian

## DURANGO | 2

### Etxebakoei laguntzeko etxea zabalduko du Caritas elkarteak Intxaurrondon

Jesusen Mirabeen kongregazioak Intxaurrondon daukan etxean jarriko dute martxan proiektua. Bertan egon diren mojek etxea utziko dute, eta etxea Caritasi uztea erabaki du kongregazioak. Eguneko zentroa, gaueko egoitza eta etxe tutelatu edo autonomoak ipini gura dituzte. Jose Agustin Maiz Andra Mariko parrokoak dioenez, 2013an zabaldu gura dute.



## Durangaldea | 6

Sortu talde politikoa eratzeko  
eztabaida prozesua martxan da

## Zaldibar | 7

Helmuga elkarteak botako du  
txupina San Andresetan

## Berriz | 6

Musika etxeko lokalak herritarrei  
erakutsiko dizkiete

## Durango | 3

Toponimiari buruzko ikerketa  
Interneten kontsulta daiteke

**A. Urreta** podologia

- Oinetako patologiak
- Neurriera egindako plantillak
- Oinetako beste hainbat gaitz

IMQ AEGON SERSANET SANITAS

Herriko gudarien kalea, 10 - behea  
48200 DURANGO  
Tel./Faxa: 94 621 54 04

**Podinara Urreta Jainaga**  
PODOLOGOIA 188. Elkargokidea

**Hurrengo eraikuntza**

**DURANGO**

**ZARATE ELEXPE**  
ERAGIGILEAK

Bixente Kapanaga 19, behea  
Tel.: 94 681 66 73 - Iurreta  
www.zarateyelexpe.com

**Elorrioren aukera onak**

**DURANGO**

## Etxebakoentzako egoitza zabalduko du Caritasak

Intxaurrondoko Jesusen Mirabeen etxean zabalduko dute hamar urterako

**C**aritas Tabira elkarteak etxebakoentzako egoitza zabalduko du Durangon. Intxaurrondoko Jesusen Mirabeen kongregazioak daukan etxean egingo dute proiektua. Izan ere, bertan egon diren mojek etxea uzteko erabakia hartu dute, eta kongregazioak Caritasi utziko dio hamar urtean erabiltzeko. Jose Agustin Maiz Andra Mariko parrokoak azaldu du Caritasen ideia: eguneko zentroa, gaueko egoitza eta etxe tutelatu edo autonomoak ipini gura dituzte. Maizek esan du 2013ko udaberri-rako zabaltzea gura dutela, baina oraindik ez dagoela data guztiz argi.

Eguneko zentroan, arropa garbitu, bazkaldu, internet erabili, ikastaroak jaso eta antzeko ekin-

### Eguneko zentroa, gaueko egoitza eta etxe tutelatuak ipini gura dituzte

tzak egin ahal izango dituzte etxebakoek. Gaua pasatzeko egoitzan dozena bat gela prestatuko dituztela esan du Maizek. Pisu tutelatu edo autonomoak egokitzea hirugarren pausoa izango da. "Laguntza publikoak lortu gura ditugu aurrera ateratzeko".

Badira ia urte bi Caritas Tabira egoitzaren egitasmoa lantzen hasi zela. *Etxepel* legez bataiatu dute. Andra Mariko parrokiak daukan lokaletan ipini gura zuten hasieran, Maizek azaldu duenez: "Horretan genbiltzala agertu

zitzagun beste eskaintza hau, eta zoragarria izan da".

Horrez gainera, Caritasak beste proiektu bitan dihardu: bigarren eskuko arroparena eta lana bilatzeko laguntza ematekoa. Aurten, ume behartsuei laguntzeko ere ipini gura dute martxan.

### Mojei eskerrak

Joan zen domekan omenaldia egin zieten Jesusen Mirabeei. Ia moja gehienek beste leku batzuetarako bidea hartu dute jadanik; lau bat bakarrik geratzen ei dira. Maizek azaldu du 90 urtean egon direla Durangon, gaixoak zaintzen eta gaubelak egiten, besteak beste. "Jendeak maite zituen". Eskerrak eman dizkie Maizek Jesusen Mirabeei. ■ M. Onandia



Intxaurrondoko egoitza zabalduko du Caritas Tabirak.

## Hamazortzi ikaslek bolondres jardungo dute laguntza ematen

San Jose Jesuitak ikastetxean laugarren aldiz garatuko dute boluntarioritza esperientzia



Agirre eta Kapanaga, ezker-eskuma, prentsaurrekoan.

San Jose Jesuitak ikastetxeko hamazortzi ikasle herriko erakundeetan laguntzaile legez ibiliko dira. Lauk Astarloa erresidentzian lagunduko dute, bik Gorabiden, lauk etorkinak hartzen dituen Jesuiten Etxean, eta zortzi ikastetxeko Lehen Hezkuntzako ikasleen begirale izango dira. Laugarrenez garatuko dute esperientzia; guztira, 82 ikaslek parte hartu izan dute programan. "Batzuk udan ere joateko engantxatu izan dira", esan du Isabel Kapanaga zuzendariak.

Euren ekimenak eta gero bide horretatik jarraitzeak poza eman die ikastetxeko arduradunei. "Gure hezkuntza proiektuan berebiziko garrantzia dauka pertsonak arlo guztietan hezteak; akademikoan gaitasunekoak izatea, baina baita giza eta fede balioetan ere".

Aitziber Agirre irakaslea da koordinatzailea, eta esan du oso kobentzituta daudela proiektuagaz. Kapanagaren ustez, gizartearentzat berri ona da gazteak kobratu barik bolondres ibiltzea. ■ M.O.

## Urki-Hegoalde eta Montorreta kaleetako lanak atzeratuta

Durango PSE-EEK EAJ kritikatu du prentsa ohar bidez, obra batzuk atzerapenagaz daudela leporatuta. Urki-Hegoalde errepidearen zortziren bat baino ez dela gauzatu gogoratu du Pilar Rios bozeroale sozialistak: "Bere osotasunean hartzen dituen 500 metroetatik 40 baino ez dira egin. Hala ere, aurrekusi diren 4,4 milioi euroetatik milioi bat gastatu da dagoeneko". Elorrio, Arrasate edo Abadiñora joateko

### Urki-Hegoalde errepidearen zortziren bat baino ez dela gauzatu gogoratu du

Durango zeharkatzea saihestuko du Urki-Hegoalde errepideak.

Bestalde, Montorreta kalea otsailaren 6tik dago itxita Faustegoienako hirigintza lanen eraginez. "Hilabete pare bat iraun behar zuten lanok hamar hilabete diraue, eta ez dira amaitu", dio Riosek. Horren ardura gobernu taldeari bota dio, bere ustez proiektuarengan jarraipen eza erakusten duelako. ■ A. B. / M.O.

### Montorreta otsailaren 6tik dago itxita Faustegoienako hirigintza lanen eraginez

## "Gazteoi beharrezkoa zaigu era kolektiboan pentsatzea"

Independentzia eta sozialismoa helburu, gazte erakunde bat sortzeko prozesuan daude

"Antolatzen ez bagara, hau izango da gure etorkizuna: kale gorria". Mezu horregaz irten zuten joan zen zapatuan hamarnaka gaztek Ezkurdira. Banketxe baten parean etzanda egin zuten ekimena. Euren ustez, borrokatu ezean, egoera horretara heldu ahal dira. Gazte horiek independentzia eta sozialismoa helburu daukan nazio mailako erakunde bat sortzeko prozesuan murgilduta daude -*Gazte Zukgua*-, eta Durango-ko gazteriari parte hartzeko gon-

bita egin diote: "Gazteoi beharrezkoa zaigu era kolektiboan pentsatzea". Hurrengo asanblada domeka honetan izango da, arratsaldeko 16:00etatik aurrera, Ibaizabal ikastolan.

Gazteen arabera, egungo sistema orokorrean, balio indibidualista eta konformistekin hezi dira gazteak. Norbanakotik kolektiborako pausoa dela ulertzen dute: "Arazo berdinak daukatekin harremanak sortzera igaro behar dugu". ■ M.O.



Gazteak, joan zen zapatuko ekimenean, Ezkurdin.



# Toponimiari buruzko ikerketaren emaitza Interneten ipini dute

1.681 lekuren izenak batu ditu Alberto Errazti ikertzaileak; udalak 2008an eman zion beka

**A**lberto Erraztik egin du Durangoko toponimiaren ikerketa, eta udalak Interneten eskegi du lan horren emaitza. Baserriak, mendiak, iturriak, eraikinak, elizak eta antzeko 1.681 lekuren izenak batu ditu Erraztik. Informazio guztia eskuragarri dago [www.durango-euskaraz.net/toponimia](http://www.durango-euskaraz.net/toponimia) webgunean. Mapa batean

**Izen bakoitzaren gainean klikatuz gero argazkiak eta datuak agertzen dira**

kokatuta daude toponimoak, gaur egungoak zein galdutakoak. Bakoitzaren gainean klikatuz gero, argazkiak eta datuak agertzen dira. Esaterako, *Munalarrineta* aukeratuta, heretikoak bertan erre zituztela azaltzen du aipamenak –gaur egungo Montevideo kalearen inguruan–. Gainera, 1489tik hona hainbat eratan idatzi dela ikusi ahal da: *Vlalarreneta*, *Vlalarryneta*, *Ulanarrieta*, *Ulibarrineta*...

Beste zenbait atal gehitu dizkiote webguneari. Toponimoak ezagutzeko bilatzaile bat instalatu dute. Argazki zaharrek espazio



Toponimia ikerketaren emaitzak [www.durango-euskaraz.net/toponimia](http://www.durango-euskaraz.net/toponimia) atarian daude ikusgai.

propioa daukate, eta umeentzako jolas bat ere txertatu dute.

Udalak 2008an eman zion Erraztiri ikerketa egiteko beka. Aitziber Irigoras alkateak esan du lan serioa eta zorrotza izan dela

**Aitziber Irigoras alkateak adierazi du emaitza Durangoko ondarearen parte dela**

egindakoa. Adierazi du emaitza Durangoko ondarearen parte dela, eta udalaz gainera herritarrek ere eskura daukatela tresna hori. Adibidez, etxe edo komertzio berriei izena ipintzeko. ■ M.Onandia

## Merkatu plazaren bueltan zaramagaz sortutako arazoa, konponduta



Merkatu plazaren bueltan dauden Monagotorre eta Kanpatorros-teta kaleetako bizilagunak jendaurrean kexatu ziren pasa den astean, esanez lurpeko zakarontzien inguruan zabor ugari pilatzen dela. Antza denez, edukiontzien funtzionamendua ez da egokia izan. Hatsa, zikinkeria, arratoiak... Hainbat argudio erabili zituzten kexatzeko. Bada, udalak kanpoko kontainerrak ipini ditu, eta bizilagunek esan dute arazoa konpondu dela.

## Euskararen Legearen harira, mobilizazioa deitu du EHEK

30 urte dira Euskararen Legea onartu zela, eta Euskal Herrian Euskarazek (EHE) uste du mugak ezarri dituela: "30 urteren buruan, zerbitzu oinarrikoenak ere norberaren hizkuntzan jasotzeko ezintasuna, euskaraz bizitzeko debekua

bizi dugu euskaldunok". Efemeri-dearen harira, mobilizazioa deitu du EHEk biharko, Durangoko udaltxearen aurrean, 12:30ean. Eragile horrek gai bi eztabaida politikora erotea eskatu du: euskararen ezagutza eta espazioak euskalduntzea. "Gaur egungo baldintza soziolinguistikoekin euskararen erabilerak goia jo du", esan dute EHEko ordezkariak.

Abenduaren 1erako Kontseiluak manifestazioa deitu du Donostian, eta bertara joateko deia ere egin du EHEk. ■ M.O.

## IIURRETA

### Pakistanera bideratuko da garapenerako dirua

New Khande-ko ur hodiak berreraikitzeke erabiliko dituzte udalak emandako 9.381 euro

Felix Baltistan Fundazioari eman- go dizkio udalak garapenerako lankidetzara proiektuetarako gordetako 9.381 euro. New Khande-ko (Pakistan) ur hodiak berreraikitzeke erabiliko da diru hori.

Udal arduradunek azaldu lez, New Khandetik hurbil dauden laborantza eremuetan ureztatze sistema bat eraikitzea dute helbu-

**Zortzi egitasmoren artean hautatu dute honakoa, interes sozial handiena duelakoan**

ru, bertako populazioaren onurarako: 1. 577 lagun eragingo die. Proiektua 2011ko irailean abiatu zuten, eta 2013ko amaieran bukatu gura dute. Aurkeztutako zortzi egitasmoren artean hautatu dute honakoa, interes sozial handiena duelakoan.

Proiektuak 121.355 euroko inbertsioa eskatuko du. Tokiko elkarteek 3.104 euro (%3) jarriko ditu, eta Felix Baltistan Fundazioak 9.381,18 euro (%8). Pakistan gobernuak ere lagundu du, ubidearen burua berreraikitzea finantzatuz (10.910 euro). ■ A. B.

## Larrakozelaira doan bidea udalarena izango da

Foru Aldundia ere ados egonda, N-634 errepideko biribilgunetik Larrakozelai futbol zelaira doan bidez zati udalaren esku geratzea onartu du udalbatzarra. Ahobatez hartu dute erabakia. BI-334 bidez zati hori (810 metro) herria-

ren esku egon behar dela uste du udalak, hala, auzokoen eskaerei ere erantzun ahal izateko.

**Hobetze lanak amaitzean**  
Behin premiazko hobetze lanak amaituta, Foru Aldundia udalaren esku utziko du bide zati hori. Iturburutik Amatarako sarrera arte oinezkoentzako bidea egokitu dute jada, eta Larrakozelai inguruan espaloia ere jarri dute. Iñaki Totorikaguena alkateak argitu duenez, zebrabideak jartzea geratzen da oraindik. ■ A. B.

## MALLABIA

### Baserritarren produktuen katalogoa egin gura du udalak

Mallabiko Udalak martxan jarri du *Baserritik Kalera* ekimena. Herriko baserritarrak salgai dituzten produktuen katalogoa kaleratzea da ekimen horren helburua. Katalogo horretan parte hartzeko interesa duten baserritarrei dei egin diete, udalarekin hartu-emanetan jarri eta katalogoa osatzeko. Prest dagoenean buzoiz buzoiz banatuko dutela azaldu dute udal arduradunek.

**Baserrian ekoiztutako produktuak ezagutzera eman eta salmenta zuzena egin gura dute**

Katalogo honen bidez, kontsumitzaileek herriko baserritarren berri izateaz gainera, zer produktu ekoizten dituzten ezagutzeko aukera izango dutela azaldu du Mila Mondragon alkateak. Baserrian ekoiztutako produktuak ezagutzera eman eta salmenta zuzena egin gura dute. Baserritarrak udalagaz harremanetan jartzeko 943 17 14 61 telefono zenbakira deitu dezakete, edo mezu elektronikoa bidali [mallabiaudala@euskalnet.net](mailto:mallabiaudala@euskalnet.net) helbidera. ■ J.G.

**Hemen agertu gura badozu deitu!**  
94 621 79 02

gremioen koordinazioa  
**urtiaga**  
Bainugelarako komun ontziak eta berogailuak  
azulejo, zoladura, teila, zeramika, hormigoi  
erakusketa, salmenta eta ipintzea  
Solaguren kalea, 3 - tel./ faxa 94 681 44 74 - MATIENA (Abadiño)

**Betikoak**  
flexografia  
ofizinarako zigiluak  
fotolitoak  
Bixente Kapanaga, 9 - 48215 IURRETA  
Tel.: 94 620 22 41

ATXONDO

# “Hirurok bat egitea komenigarri ikusten genuela dut gogoan”

1962an Arrazola, Axpe eta Apatata fusioatzeko sortu zen batzordeko kidea izan zen Victor Baseta

**A**rrazolak, Axpek eta Apatak bat egin eta Atxondo udal-lerria sortu zutela 50. urte bete dira azaroaren 4an. Bihar urrats esanguratsu hori gogoratu-ko dute hiru auzoetan.

1962an Apatamonasterioko alkatea zen Claudio Urizarrek jarri zuen martxan fusioa. Hiru herriek banan banan baldin ekonomiko urriak zituztela-eta, bat egitea proposatu zuen. Gerediaga elkartearen Astola aldizkariko erreportajearen jasotzen denez, fusio hori bideratzeko batzorde bat eratu zuten hiru herritako ordezkariekin, eta

**Sasoi bateko udaletxeak zeuden eraikinetan plaka bana ipiniko dute bihar**

bertako kidea izan zen Victor Baseta (87 urte, Axpe, Elixaburu base-ria). Batzorde hartatik bera da gaur egun bizi den bakarra. Baseta zinegotzia izan zen Axpen, eta ondoren, baita Atxondon ere: “Ez geneukan ia industriarik. Diru sarrerak behera zihoazen eta gastuak gora. Ordezkariek nork bere herriko nortasuna eta interesak defendatzen genituen batzordean, baina ez dut gogoan eztabaida handirik sortu zenik. Hirurok bat

egitea komenigarri ikusten genuela gogoratzen dut”, azaldu du.

Hasieran, herritar batzuek fusioa erreparoeekin ikusten zutela dio: “Batez ere edadeko pertso- nek, bizi osoa hantxe zeramate- nek, hirurak bat egitea agintea beste batzuen esku uztea zelazio- ten. Baina hasiera-hasieran izan zen. Gerora, bateratzea denon onerako zela ulertu zutela uste dut”. Izan ere, salbuespenak sal- buespen, hiru herritako bizilagun- nek hartu-eman ona zutela gogo- ratzen du Basetak: “Esaterako, gogoan dut Asentzio egunean eta errogatiba egunetan Arrazolara joaten ginela meza entzutera, eta eurak ere Axpera etortzen ziren. Hartu-eman ona geneukan”.

**Biharko ekitaldiak**

Hiru auzoek herri izaera eta anto- lamendua zuten sasoiaren udale- txekizandako eraikinetan urteu- rrenagogoratzen duen plaka bana ipiniko dute bihar udal ordezkari- ek. Herritar denei dei egin diete tokian tokiko ekitaldietara bertara- ratu eta urteurrena elkarrekin gogoratzeko. Arrazolan batuko dira lehenengo, 11:00etan. Orain etxebizitza sozialak dauden eraik- ina da sasoi bateko udaletxea. Pla- ka ipini ondoren, Andasto dantza taldeak saioa eskainiko du. Axpen,



Victor Baseta Aguirre zinegotzia izan zen Axpen lehenengo, eta Atxondon ondoren.



Herritarrak sasoi bateko ‘pullman’ autobusari tiraka. Eraz aldizkariko artxiboa

12:00etan ipini dute hitzordua. Frontoi ondoko eraikina da uda- letxe zaharra, eta bertan ezarriko dute plaka. Ondoren, Gorka Ostola- laza bertsolariak urteurrenoko bertso batzuk kantatuko ditu. Axpeko ekitaldia bertatik bertara jarraitzeko asmoa du Victor Base-

tak. Azkenik, 13:00etan, Apatan batuko dira gaur egun udaletxea dagoen eraikinean. Trikitilarien musikak girotuko du plaka jartze- ko unea. Horrekin batera, ohitu- ra zahar bat berreskuratuko dute. Sasoi batean, aginte makila eskuz aldatuz islatzen zuten alkate bate-

tik bestera gertatzen zen botere aldaketa. Apatan zeremonia hori gogoratu bakarrik ez, berresku- ratu egingo dute, aurrerantzean alkatea aldatzen den bakoitzean errepikatzeko helburuagaz. Ahal badu, ekitaldi horretan ere egon- go da Baseta. ■ J.Derteano

ELORRIO

# Datorren urterako zergak eta tasak %2,5 igotzea onartu dute

EAJk eta PPK babestu dute proposamena, eta Bildu abstenitu egin da

Durandaldeko hainbat udalen antzera, Elorriokoak ere %2,5 igot- ko ditu herritarrentzako zergak eta tasak. Beste era batera esanda, herritar bakoitzak 0,02 euro ordain-

**Mujikaren arabera, datorren urtean udalak 45.000 euro gehiago lortuko ditu horrela**

du beharko ditu eguneko. EAJk eta PPK babestu dute proposame- na, eta Bildu abstenitu egin da. Joseba Mujika alkateordeak (EAJ) esan du 2013ko aurrekontuetara- ko aurtengorako baino 725.000 euro gutxiago edukiko dituztela -400.000 Udalkutxara bueltatu beharrekoa eta 325.000 eraikuntza- ko zergen beherakada-. Zergen igoera, aurreikuspen horri erantzute- ko erabili gura dute zati batean. Mujikaren arabera, datorren urtean udalak 45.000 euro gehiago lortu- ko ditu horrela, eta 2014an 90.000. Bestalde, udaleko gastuetan ere neurriak hartu beharko dituztela adierazi du, “zerbitzuak eta gastu soziala mantendu gura badira”.

Igoeraren aurrean, hobari bi eskainiko dituztela aurreratu du Mujikak: alargunei %50 Ondasun Higiezinaren gaineko Zergan, eta lana sustatzen duten enpresei %50 eraikuntza zergan. Gainera, gaz-

teei begira, alokairua ordaintze- ko 250 euroko laguntza emango dutela esan du. Bilduko Idoia Buruagak adierazi du, diru kon- tuak orekatzeko bada, ez daude- la zergak igotzearen kontra, bai- na jeltzaleek ez dietela igoeraren helbururik azaldu. Enpresetara- ko hobaria ez dela berria dio Buruagak, iaz ere bazegoela, eta diru-laguntzen gaiagaz hobari falta estali gura izatea leporatu dio. “Joan zen urtean, izoztean, harro-harro kaleratu zuten egin- dakoa. Oraingoan, herritarren egoera okerragoa denean, igo- era proposatzen dute”.

Mujikak Bildu kritikatu du, bere ustez udaletan irizpide des- berdinak erabiltzen dituelako. Buruagaren iritziz, udal bakoitzak egoera propioa bizi du, eta ezin dira alderatu. PPKko Carlos Garcia proposamena babestu du: “Salbuespeneko egoeran gaude- nez, neurri horiek hartu behar dira”. ■ M. O.

**Buruagak adierazi du jeltzaleek ez dietela igoeraren helbururik azaldu**

GARAI

# Paperezko trajeen museoa bisitatuko dute nagusiek

Datorren astelehenean Gueñe- serako txangoa egingo dute hain- bat lagunek, herriko nagusien San Migel elkarateak antolatuta. Bertan, paperez egindako soine- koen edo trajeen museoa bisita- tuko dute, antolatzaileek adiera- zi dutenez.

Goizeko 09:00etan irtengo dute Garaitik, eta 10:15 inguruan Gueñeseko udaletxera joango dira. 11:30ean egingo dute bisita, eta ostean Sudupera joango dira, han ere gai beragaz lotuta- ko ekintza bat egiteko. Sudupe- tik bueltan, Gueñeseko Erreka jatetxean bazkalduko dute garai- tarrek, 14:30ean. Jaki askoko menua edukiko ei dute dastatze- ko. Gainera, bazkalosterako dan- tzaldia ere prestatu diete.

Egun osoko irteeraren ostean, arratsalde partean buel- tatuko dira garaitarrak Enkarter- rrietatik. ■ M. O.



Elorriarrek %2,5 gehiago ordaindu beharko dute zergetan.

**DURANGALDEA**

# BTT zentroa zabaldu gura dute Abadiñoko trinketean

Mendi bizikletaz ibiltzeko hamabost ibilbide prestatuko dituztela esan dute

**M**endi bizikletan ibiltzeko Durangaldean dagoen zaletasunari erantzun asmoz, BTT zentro bat zabalduko du Amankomunazgoak Abadiñon,

**Afizioa zabaltzea eta turismoa elikatzea ere helburuen artean dauzka Amankomunazgoak**

Tornosolo trinketean. Eskaintza hori ez da bakarrik zaletuei egingakoa; afizioa zabaltzea eta turismoa elikatzea ere helburuen artean dauzkate, Oskar Zarrabeitia pre-



BTT zentroaren bultzatzaile eta diseinugileak, eguazteneko prentsurrekoan.

sidenteak eguaztenean prentsurrekoan adierazi zuenez. Egitasmoaren lehenengo fasea diseinatuko dute datozen hilabeteetan: mendi bizikletaz ibiltzeko hamabost ibilbide prestatuko ditu Sendoa enpresak. Guillermo Ruiz de Erentxun dabil behar horretan, eta esan zuenez, momentuz 30 ibilbide irudikatu dituzte hainbat aditu eta zaleturen laguntzagaz. Ernesto Lejarreta da horietako bat, eta agerraldian egon zen ekimenari babesa ematen. Ruiz de Erentxunen arabera, datorren hilean itxiko dute ibilbideen zerrenda, baina gura duenak oraindik ekarpenak egiteko aukera dauka, [btt-durangaldea@gmail.com](mailto:btt-durangaldea@gmail.com) helbidera idatzita. Ibilbide guztiak Tornosolon hasi eta amaituko dira, eta lursail publikoetatik pasatuko dira.

**Ibilbideak pentsatu eta gero, seinalizazio eta prestatze lanetan hasiko dira**

EAEko bosgarren BTT zentroa izango da Abadiñokoa. Paisaje eta ibilbideengatik, erakargarria izango dela uste du Ruiz de Erentxunek. Ibilbideak pentsatu eta gero, seinalizazio eta prestatze lanetan hasiko dira. Zentroa bigarren fase batean garatuko dutela azaldu du Zarrabeitiak. Aldagelak eta bizikletak konpontzeko eta gordetzeko lekua edukiko du Tornosoloko BTT zentroak, besteak beste. ■ M. Onaindia

**OTXANDIO**

# Bertso afaria egingo dute Jon Maia eta Maialen Lujanbiogaz

Azaroaren 30ean, bertso afaria antolatu dute Mainondo ikastetxeko gimnasioan. Jon Maia eta gaur egungo Euskal Herriko bertsolari txapelduna, Maialen Lujanbio, ibiliko dira bertsoan, eta Asier Ibaibarriagak jarritako gaien inguruan jardungo dute. Bertso afaria 21:30ean hasiko da, eta sarrerak Fonda tabernan egongo dira salgai datorren martitzenera arte. Ekimena Otxandioko Udal Euskara Batzordeak eta Otxandioko Gazte Asanbladak antolatu dute.

**Sarrerak Fonda tabernan egongo dira salgai datorren martitzenera arte**

Bertso afarian herri ginkana sari banaketa egingo dute. Irabazleek jasoko dituzten sariez gain, aurren, nobedade moduan, beste bost sari banatuko dituzte parte-hartzaile guztien artean. Parte-hartzea sustatzea da helburua. Horrela, astebururen batean galderei erantzun ez arren, inor ez da aukera barik geratuko; beti dago zer edo zer irabazteko aukera. ■ J. D.

# Gabonetako otzarak eskainiko ditu "oizegin.com" atariak

Bertako nekazaritza produktuak ezagutarazteko eta saltzeko sortu dute *oizegin.com* proiektua

Durangaldeko eta Lea Artibaiko ekoizleen produktuekin Gabonetako otzarak egiteko aukera ipini dute *oizegin.com* atarian. Urkiola eta Lea-Artibai landa garapenerako elkarteek sortu zuten egitasmoa ekainean, eta webgune horretan, besteak beste, erosketak online egiteko aukera ematen dute. Eskualde bietako ekoizleen produktuak ezagutarazi eta saltzeko helburua dauka *oizegin.com*-ek.

Gabonetako otzarak eskatu gura dituenak abenduaren 14ra arte eskatu ahal izango ditu, webguneatik bertatik. Banaketak abenduaren 14tik 18ra egingo dituzte.

**Urkiola eta Lea-Artibai landa garapenerako elkarteek sortu zuten egitasmoa ekainean**

**Otzarak eskatu gura dituenak abenduaren 14ra arte eskatu ahal izango ditu, webgunean**

Gainera, abenduaren 31 baino lehen eskatuz gero, bidalketa doan egingo dute.

*Oizegin.com* webgunean, dendaz gainera, baserriarrei egingako elkarriketak, produktuen informazioa, eta aholkuentzako tartea dago, besteak beste. Juan Mari Totorika Urkiola Landa Garapena elkarteak arduradunak azaldu duenez, helburua 30 ekoizle baino gehiagok proiektuagaz bat egitea da: "atariaren online dendan egunetik egunera produktuen eskaintza zabalagoa izatea gura dugu".

**Biltegia, Muruetan**

Erosketen biltegia Abadiñoko Murueta baserrian dago. Gabonetako eskaintza bereziaz gainera, urte osoan asteen banaketarako egun bi egoten dira: martitzenak eta eguenak. Produktu freskoak martitzenetan banatzen dituzte. Antolatzaileek azaldu dutenez, "produktuen freskotasuna eta kalitatea segurtatu gura dugu". Informazioa eskuratzeko 94 620 36 11 zenbakira deitu daiteke, edo [info@oizegin.com](mailto:info@oizegin.com)-era idatzi.

# Anboto, Hekimen euskarazko hedabideen elkarteko kide

Publikoak ez diren euskarazko 52 hedabideek osatzen dute elkarte berria

Indarrak batzea. Horixe da atzo Donostian aurkeztu zuten Hekimen euskarazko hedabideen elkartearen helburua. Aurkezpenean azaldu dutenez, "euskarazko hedabideen elkarlana bideratzera dator Hekimen". Gaineratu dutenez, "euskararen hiztun komunitateak behar duen eremu komunikatibo sendoa garatzera dator". Proiektuan bat egin duten hedabideen ezaugarri nagusiak, euskara hutsez jardutea eta publikoak ez izatea dira. Gipuzkoako Berritzenen laguntzarekin, lanean

aritu dira elkarrekin eta elkarte hau da haren "fruitua".

Desafioak ez dira makalak. Esaterako, egunotan ari da eratzen Eusko Jaurlaritza, eta haren ordezkariekin harreman finkoa bideratzeko asmoa dute: "Serio berba egin beharko dugu diru-laguntzez, publikitate instituzionalaz, mintzakidetzara iraukorraz, etab."

**Parte-hartze zabala**

Argia, Berria, Euskal Irratiak, Gaur 8, Gazteberri, 11 amaika Telebista, Tokikom eta Xalao Telebista dira

Hekimenen kide. Anboto Komunikabideak-ek, Tokikomen bazkide den heinean, egitasmoagaz bat egin du. Guztira 52 hedabide batu dira elkarrekin bidetari ekiteneko asmoz.

Besteak beste, Euskal Hedabideen Behatokia sortu nahi du, Hekimeneke, unibertsi-tateak, instituzioak, eta hedabide publikoak bilduko dituen. Ikerketa jorratuko duena, audientziak, teknologia berriak, beste hizkuntzetako esperientziak aztertuko dituen. ■ J. G.



Hedabideek atzo Donostian deitutako agerraldia.

DURANGALDEA

# Sortu talde politikoa eratzeko eztabaidari ekin diote

Lehenengo batzarrean oinarri ideologikoak berrikusiko dituzte, azaldu dutenez



Joan zen zapatuan lurretako batzarrean hartutako irudia.

**E**zker Abertzaleak bere talde politikoa berria izango dena eratzeko prozesua ipini du martxan. Orain arteko alderdiak legez kanpo utzi ostean, Sortu baliozkoa dela onartu du Espainiako justiziak. Hori dela-eta, zelan antolatu eta zein ildo politikoa garatu eztabaidatuko dute batzarretan. Gainera, oinarri ideologikoak ere berrikusiko dituzte, eta horixe izango da prozesuko lehenengo

**Zelan antolatu eta zein ildo politikoa garatu eztabaidatuko dute batzarretan**

eztabaidagaia. Iurretan joan zen zapatuan landu zuten 40 lagun inguruk. Independentzia, sozialismoa, feminismoa edota euskara hausnartu zituzten, esaterako. Durangaldeko gainerako herrietan bihar batuko dira asmo beragaz.

Abenduaren 15ean ildo politikoa jorratuko dute, eta urtarrilaren 26an antolaketa. Otsailaren

9an barne hauteskundeak egingo dituzte, eta prozesua otsailaren 23an amaituko dute kongresuagaz.

**Ildo politikoa erekin bat**

Ezker Abertzaleak prentsa ohar bidez adierazi duenez, eztabaida parte-hartze sakon eta demokratikoan oinarrituko dute. "Ezker Abertzaleak martxan jarri duen *Zutik Euskal Herria* ildo politikoa erekin bat datorren pertsona orok, orain arte Ezker Abertzalekoa izan ala ez, parte hartu dezan nahi dugu". ■ M. Onaindia

**HITZORDUAK**

**AZAROAREN 24an**

**Otxandio 09:00etan,** Haurtzaindegian

**Abadiño 09:30ean,** Txanportan

**Berriz 10:00etan,** Kultur Etxe zaharrean

**Mañaria 10:00etan,** Udal aretoan (izurtzarrak ere bai)

**Durango 16:00etan,** Ibaizabal ikastolan

**Atxondo 16:00etan,** Herri eskolan

**Zaldibar 16:00etan,** Liburutegi zaharrean

**Elorrio 16:30ean,** Arriolan

**Mallabia 22:00ean,** Izar Gorriin

MAÑARIA

## Bigarren eskuko azokan parte hartzeko izena eman ahal da

Abenduaren 16an egingo dute Mañarian bigarren eskuko azoka, frontoian. Udalak antolatu du ekimena, eta Ainara Areitio kultura zinegotziak esan du parte hartu gura dutenek badutela dagoeneko izena emateko aukera. Durangaldeko biztanleei ere gonbita egin die Areitio. Azaroaren 30ean itxiko dute parte-hartzaileen zerrenda. Bigarren eskuko den edozer ipini ahal izango dasalgai. Iaz, esaterako, arropa, liburuak, bizikletak edota altzariak egon ziren saltzeko. Partaideek euro bi ordaindu beharko dute postua ipintzeko; udalak utziko dizkie mahai eta aulkiak. Udalak berak ere postua ipini zuen iaz, eta aurten errepikatuko du. Areitio esan du aulkiak, mahai bat eta idaz-makina bat ipiniko dituztela, besteak beste.

**Jaietako argazkiak ikusgai** Bestalde, jai batzordeak aurtengo jaietako argazkiak batu ditu, eta datorren barikuan erakutsiko dituzte. Bideo-muntaia egin dute argazkiekin. ■ M. O.

BERRIZ

# Herriko taldeak badabiltza Musika Etxean entseatzen

Gaur 19:00etan lokaletako atea zabalduko dituzte herritar denek ikusteko

Azken aste bi hauetan hamabi musika talde eta berrogei pertsonatik gora ibili da Musika Etxeko lokaletan aurrera eta atzera. Entsegurako lokalen premiei erantzuteko atondu dute Musika Etxea Iturritza kalean, mahaijokoak dauden plazaren azpian. Udala BREA Berrizko Rock Elkartearekin elkarlanean ibili da proiektuan, eta gaur herritarrei zabalduko dizkiete atea, 19:00etatik aurrera.

Asteotako mugimendua ikusita, Tres41 taldeko Ion Chavezek

lokalak "bizi-bizirik" egongo direla uste du. BREA lokalen faltagatik sortu zuten musika taldeek, eta lokaletan, euren hartu-emanan indartu egin dela azaldu du Chavezek: "Taldeetako jendea elkartuta, proiektu berriak ere jaio ahal izango dira". Gerora kontzertuak edo ikastaroak antolatzeko ideia ere badaukate: "Herriak zerbait bueltan jasotzea gura dugu".

**Taldeen elkarbizitza** Entsegurako lau lokal dituzte,

komuna eta dutxa ere bertan. Aste-ko egun guztietan goizeko 10:00etatik gaueko 22:00ak arte dago zabalik Musika Etxea. "Hasieran denok eguenetan entseatzen genuela konturatu ginen, baina konpoduko gara. Orain arte, Gaztetxean adibidez, bospasei talde egon gara", azaldu du Chavezek.

BREAK kudeatuko du Musika Etxearen erabilera. Berriztik kanpoko taldeek ere badute bertan entsaiatzeko aukera, alokairuaren prezioa ordainduta. ■ A. U.



Zain taldeko kideak eguzten honetan, maketarako prestaketak egiten.

## Azokarako euskarazko materiala batzen dabiltza

Abenduaren 1ean euskarazko bigarren eskuko liburu eta disko azoka egingo dute Olakueta plazan. Azoka horretan liburu, disko eta ipuinak eskuratu ahal izango dira, beste batzuen trukean, edo euro bat, bi edo hiru ordainduta. Trukea egin gura duenak, azaroaren 29ra arte eroan dezake materiala liburutegira, udal-etxera, Gaztelekura edo institutu-  
ra.

Euskararen Nazioarteko Eguna dela-eta antolatuko dute euskarazko bigarren eskuko liburu eta disko azoka. Aurtengoa, bigarren edizioa izango da. Liburu, disko edo ipuina erosten duenak, trukeko txartel bat eskuratu du, eta abenduaren 1eko azokan, bono horregaz eskuratu ahal izango du materiala.

Parte-hartzaile guztien artean, 50 euroko txartel bi zozkatuko dituzte, Berrizko dendetan euskarazko liburu, disko edo jostailuak erosteko. Azokaz gainera, Olakueta plazan umeentzako jolasak ere egingo dira, zapatu horretan. ■ A. U.

**Abenduaren 1ean euskarazko bigarren eskuko liburu eta disko azoka egingo dute**

IZURTZA

## Irisgarritasun arloan errepide inguruak sortzen du kezka gehien

Joan zen astean herrian dauden irisgarritasun gabeziak jakiteko herri batzarra egin zuten, eta 16 bat herritar batu ziren. Irisgarritasun plana diseinatzeko ardura-dunetako bat da Kimetz Munitxa injinerua, eta haren esanetan "batez ere, errepide inguruan nabaritzen dituzten gabeziak azal-

**Izurtzatik Durangorako bidean dagoen biribilgunea ez ei dago ondo oinezkoentzat**

du zituzten". Esaterako, Izurtzatik Durangorako bidean egin duten biribilgunea oinezkoentzako ez dela egokia azaldu zuten herritarrek. Errepidea gurutzatzeko zehrabidea ez dago lekuri seguruan eta, gainera, inguru hura ez dago oinezkoentzako behar bezala egokituta. Horregatik, umeen kotxeagaz eta gurgildun aulkiagaz doazenez zailtasunak izaten dituzte ingurune horretan. Horrez gain, errepide inguruko baserri edo auzo sarreretan sortzen diren estuguneak izan ziren gainerako kezka nagusiak.

Adituek egindako azterketagaz eta herritarrek egindako ekarpenekin irisgarritasun plana diseinatu, eta abenduan aurkeztuko dute udalean. ■ J.D.



## Durungaldean labor

### Irigorasek Agenda 21eko jardunaldietan parte hartu du

Rio+20: jasangarritasunerako bidean. Udalerrien erronkak eta erantzunak jardunaldian parte hartu du asteon Durangoko alkate Aitziber Irigorasek. Mahai-inguru batean jasangarritasunaren errentagarritasun sozialari buruz berba egin du. Udalen arteko sareak aprobetxatu behar direla adierazi du Irigorasek, eta nabarmendu duenez, "Tokiko Agenda Plana estrategikoa da 2020ko Durangori begira".

### Ayurveda terapia zer den azalduko dute Elorrion

Ayurveda terapia motari buruzko hitzaldia emango dute azaroaren 30ean, 19:00etan, Oreka izeneko lokalean, Andotxeta kalean (Elorrion). Jatorria Indian duen medikuntza sistema da Ayurveda. Pertsonen osasun fisikoa zein emozionala zaintzea bilatzen du terapia horrek, besteak beste, belarrekin egindako olio-masajekin. Informazio gehiago: [aiciber@hotmail.com](mailto:aiciber@hotmail.com).

### Fracking-ari buruzko hitzaldia Elorrion

Martitzenean, 19:30ean, frackingari buruzko hitzaldia eskainiko dute Elorrioko kultur etxean. Elorrixa Ekologi Taldeak eta Ekologistak Martxanek antolatuko dute. Frackinga lurpetik gasa ateratzeko prozedura azkartzen duen sistema da, eta ingurugiro arloan, eztabaida handia eragin du.

### "Lan duinaren alde" kontzentratuko dira

Irailaren 26ko greba deitzaileek sortutako guneak "lan duinaren eta eskubide sozialen aldeko" hainbat ekimen eta mobilizazio egingo ditu datozen egunotan. Bide horretatik, datorren astelehenean, 19:00etan, kontzentrazioa egingo dute Durangon, Ezkurdin.

## ▣ ZALDIBAR

# Helmuga emakume elkarteak emango die San Andresei hasiera

Herriko hamaika elkarteren laguntzagaz antolatu dute egitaraua. Eguenean botako dute txapligua

Azaroaren 29an, 19:00etan botako dute San Andres jaien hasiera iragarriko duen txapligua. Helmuga emakumeen elkarteak urteetan egin duen lana eskertzeko, udalak euren egin die aurtun proposamena. Udaltzeko bakoitik botako dute txapligua, eta ondoren, azken urteetan bezala, kalejira egingo dute Koral elkarteko trikitilariekin.

Horren ostean, jaiak gozatzeko hainbat ekintza izango dira azaroaren 30ean eta abenduaren 1 eta 2an, goiz zein arratsaldean.

Herriko hamaika elkarteren laguntzagaz antolatu dute egitaraua. Rafa Urizar zinegotziak esan duenez, "lan itzela egiten dute elkarrekin, beti daude laguntzeko

prest: udalak bakarrik ezin du honelako egitaraua antolatu".

Txapligua bota aurretik hasiko da, baina, jai egitaraua. Arku Tiro taldeak antolatuta, esaterako, San Andres txapelketa egingo dute azaroaren 25ean, kiroldegian, 08:00etatik 15:00etara.

### Artisautza azoka

Durungaldeko 14 artisauen lana erakusgai eta salgai ipiniko dute, abenduaren 1ean. Goiz eta arratsaldean egongo da azoka zabalik, eta nahi duenak, artisautza tailerretan parte hartu ahal izango du.

Azaroaren 30ean, umeentzako parkea egun osoan egongo da zabalik. Zaldua mendi taldeak, berriz, umeentzako eskalada esko-



Arantza Baigorri alkateak eta Rafa Urizar zinegotziak aurkeztu dute jai egitaraua.

la eskainiko du abenduaren 1ean, rokodromoan.

Ilargi argazki taldearen lehaketara aurkezturiko lanak jaiak iraun bitartean egongo dira ikusgai, udaletxe zaharrean.

**Durungaldeko 14 artisauen lana erakusgai eta salgai ipiniko dute, abenduaren 1ean**

Gaztetxean, kontzertua eta bazkari herrikoia antolatu dituzte, besteak beste. Abenduaren 2an, Euskal Herriko trikitilari gazteen txapelketaren finala jokatu dute jaien barruan. ■ I.E.

## ▣ ABADIÑO

# Preso eta iheslarien aldeko hainbat ekimen martxan

Azaroaren 30ean jokatu ditzate txapelketako partiduak. Herrera plataformak antolatu ditu

Abadiñoko Herrera plataformak antolatuta, preso eta iheslarien eskubideen aldeko futbito txapelketako partiduak jokatu ditzate, azaroaren 30ean.

Futbito txapelketa horretan parte hartu gura izan duten taldeek gaur arte eman ahal izan dute izena Maitena, Vancouver, Mesoi, Larrano eta Xirimiri tabernetan.

Preso eta iheslarien alde Herrera plataformak antolatuta, bertso saioa ere izango da, bestalde, abenduaren 14an, Abadiñoko probalekuan.

Peru Magdalena durangarra ibiliko da abenduaren 14ko saio horretan gai-jartzaile lanetan, eta Amets Arzallus, Sustrai Colina, Maialen Lujanbio, Andoni Egaña eta Aitor Bizkarra herriko bertsolari gazteak jardungo dute Abadiñoko probalekuan bertsoetan. ■ I.E.

# Elkartasun azoka egingo dute asteburuan Matienan

Traña-Matienako eskolako guraso elkarteak antolatu du elkartasun azoka txikia. Barikuan, zapatuan eta domekan, Traña-Matienako frontoian atonduko dute elkartasun azoka hori. Barikuan

17:00etatik 20:00etara, eta zapatu-domekan goiz eta arratsaldean egongo da azoka zabalik.

Jendeak emandako gauzak salduko dituzte azokan, eta jasotako dirua Caritas erakundeari emango diote. Liburuak, CDak, jostailuak eta beste hainbat gauza egongo dira salgai.

Azokagaz kolaboratu gura duenak, azaroaren 29ra arte eman ditzake hondatu bako gauzak eta janari ez galkorrak, guraso elkarterean egoitza. ■ I.E.

goizeko 08:00etatik gabeko 21:00etara zabalik

**clínica dental hartzklinika**  
b. unamunzaga e. etxebarria

{ odontologia orokorra eta espezialitateak }

muruetatorre bloque 2 - C bajo 48200 durango tel. 94 681 99 51

**Arrike**  
Liburudenda

Kalebarria, z/g - 48200 DURANGO  
Tel.: 94 620 18 93 - Fax: 94 681 64 03

**"BODEGUILLA"**

TRAÑA-MATIENA  
Tfnoa. 94 681 43 85

**GAER** DESINFEKZIOAK

Mota guztietako intsektuak eta arratoiak hiltzen ditugu:  
LABEZOMORROAK, IÑURRIAK, JANTZISITZAK, ARRATOIAK, ARKAKUSOAK, ERLEAK...

Iturriza, 42 - 2 ezk. - Tf./Faxa: 94 622 57 74 - 48240 BERRIZ Mug: 658 75 72 79

**BILBAO ASEGURUAK** Grupo CATALANA OCCIDENTE  
Jabier Rueda

Jose Antonio Agirre Lehend. 8 • 48200 Durango  
Tel.: 94 620 27 10 • Faxa: 94 681 65 77

## BERBAZ &gt;

**“Krisiagaz, Abiadura Handiko Trenak geroago eta zentzu gutxiago dauka”**

Espainiako Gobernuak diru arazo larriekin, AHT lehentasuna ez dela esan du Frantziak... Zer gertatuko da obrarekin?



Argazki Press

**Roberto Bermejo •**

▪ Injineru industrial, ekonomian doktorea eta EHUko irakaslea

▪ Durangarra da

Luis Bilbaok behin egunkari batean esan zuenez, Supersurraguk, gure seme-alabek eta bilobetako batzuk ordaindu beharko dute. Munduko beste edozein lekutan ergeltzat hartu eta diminitzeko eskatuko zioten.

**Egoera ekonomikoa dela eta, gobernuek gehiago pentsatuko dute errentagarritasunean?**

Eusko Jaurlaritzak agindutako ikerketetan AHTak lanpostu asko sortuko dituela eta miragarria dela jaso dute. Edozerk sortu ditzake lanpostuak; Keynes ekonomialariak esaten zuen, zuloak egin eta tapatzen bazabiltza ere lortzen dituzula lanpostuak. AHT egin ahal zen inbertsio txarrrena da. Trenbidean inbertsio puntualak egin eta sistema osoaren akatsak konpontzea bai, hori beharrezkoa da eta merkantziak ateratzeko premia dago, baina horrelako obra... Jasoko diren onuren artean debora aurrezte dagoela diote, baina denbora kontuak eta bidaiari kopurua puztu egin dituzte. Hiriburutik hiriburura joan-etorri guztien %2 baino gutxiago izaten da, eta hortik gehienak ikasleak dira. Ikasleak ez dute AHT ordainduko, eta ez die behar duten zerbitzua emango. Autobusek unibertsitatetik hiriburura eroan eta geltokiak izaten dituzte auzoka. Zer egingo du jendeak? Leioatik bajatu RENFERa, handik Gasteizko kanpoaldera joan, eta autobusa hartu hiri barrura?

**Zure ustez, epe labur-ertainera, AHTaren lanetan geldialdi bat egongo da?**

Argi daukadana da, Madrilek geratu egingo dutela. Gelditzen dabil dagoeneko. Baina EAJK esan du lehentasuna duela. Oparoaldi garaian obra hauek egitea faraonikoa zen. Orain, inkesta guztien arabera, herritarren intereseko gaietan murrizketak egin dabilzan momentuan? Krisiagaz AHTk geroago eta zentzu gutxiago dauka. ■ A.Ugalde

**G**arraio azpiegituretan gertatua da Roberto Bermejo ekonomialaria. Abiadura Handiko Trenaren egitasmoa hurretik jarraitu du. Bere txostenetan, AHT errentagarria ez dela eta bestelako alternatibak behar direla defendatu du. Krisian azpiegitura handi honek duen egoerari buruz hitzaldia eman du Durangon.

**Urteak daroatzazu Abiadura Handiko Trena bideragarria ez dela esaten.**

Astakeria itzela da. Jatorrizko bekatu bat dauka. 1990eko hamarkadan, Europako Batasuna bazezilen Europa kohesioatzeko ideiarri bueltak ematen, eta 1994rako, hamalau proiektu ataratu zituen, gehienak abiadura handiko lineen ingurukoak. Bruselak babesa ematen du, baina abiadura handiaren oso definizio lightagaz. Abiadura handia 200 km/orduko mugan ezarri zuen, eta abiadura hori lor daiteke, teknologia aldatzeko beharrik barik. Tuneletan trena ezin daiteke 130 km/ordutik pasatu, eta oker ez banago, AHTaren bidearen %40 tuneletatik doa; nik munduko metro handiena deitzen diot.

**Obrak hasita krisia etorri da.**

Orain inork ez dauka dirurik eta gutxiago Espainiako Gobernuak. Abiadura Handia mantentzen da, baina ez da ia inbertitzen. Euskal Herrian Madrilek ordaintzen ditu obrak, baina Eusko Jaurlaritzak Gipuzkoako zatia aurreratzea erabaki zuen. Madrilgo Gobernuak ordainketak atzeratzen dabil, kupoaren kalkulagaz ados ez daudela diote... Orain bertan, Eusko Jaurla-

eta bitartean hezkuntzatik, osasunetik eta gizarte arlotik murrizketak eginen. Euskadiko konexioaren istorio guztia berritsukeria politikoa da. Gu deskonexionatzen eta erasotzen dabil. Ni jada ez naiz Mugarrara joaten, ez dudalako dauden lubakietatik pasatu gura. Behin Orozketarantz joan nintzen, eta buelta egin nuen... Maite izan duzun paisaia guztiz hondatuta ikustea izugarria da.

egiteko inbertsioak egin ditu. Behin AHT Lion eta Paris artean eginda, eta Londres eta Brusela lortuta... Bidaiariei begira, populazio handiko lekuetatik ibilbide laburrak bai, baina bestela ez zaio AHT interesatzen.

**Trenak trafikoa kenduko zuela zioten, baina errepedeak eraikitzen jarraitu dute.**

Bai, eta ez dute errentagarritasunik lortzen. Supersurrean, Artxandako tuneletan... Horixe gertatu da. Askotan pentsatu izan dut badela horrelako harreman sinbiotiko bat komunikabide, enpresario eta botere zentroen artean. Artxandako tunelek inauguratu zirenean, El Correok zazpi orri eskaini zituzkion, bigarrenetik bederatzigarrenera; “La obra del siglo”. Orain porrot ekonomikoa da, eta gu gabilta ordaintzen, enpresak hondoa jo duelako. Horiek dira hemen egiten diren obrak. Jose

**“Orain bertan, Eusko Jaurlaritzak dabil obra ordaintzen, eta bitartean hezkuntzatik, osasunetik eta gizarte arlotik murrizketak egin dituzte”**

ritzak dabil obra ordaintzen. Aurtengo aurrekontuan ia 400 milioi euro bideratu ditu, eta guztia gastatzen dabil. Kontua da, azkenean guk ordainduko dugula. Azpiegitura guztietan gertatzen da, gainera, aurreikusitakoa baino gastu handiagoak egoten direla. Ekonomia sailburuari behin esan nion 400 milioi horiek bertan inbertitzeko beste leku batetik kendu dutela, eta hark; “gero Madrilek ordainduko du” erantzun zidan. Hor gaude,

**Zure ustez, ordaindu eta amaitu ahal izango ote da AHT?**

Arazo nagusia da Europak abiadura handiko lineak gura dituela. Absurdua da, esan dudako guztiaz gainera, halakorik ez duela gura esan duelako Frantziak. Ez zaio interesatzen. 2020ra arte atzeratuko dutela esan dute, eta hori politika arloan benetako data barik atzeratzea da. Frantziari merkantziak interesatzen zaizkio, eta arlo horretan errepede berriak

**“Oparoaldian ere obra hauek egitea faraonikoa zen”**



 @anbotokultura

# KULTURA<sup>></sup>

ANTZERKIA &gt; ESTREINALDIA



Jon Kepa Garro zinegotzia, Iñaki Rikarte zuzendaria, eta Txefo Rodriguez eta Gorka Ganso aktoreak, aurkezpenean.

## Antzoki barrurako lehenengo obra estreinatuko du Ganso & Cia taldeak

San Agustin kulturgunean aurkeztuko dute azaroaren 30ean eta abenduaren 1ean Ganso & Cia taldearen *Babia* lan berria

**E**manaldi bikoitza eskainiko du Ganso & Cia konpainiak azaroaren 30ean eta abenduaren 1ean, Durango San Agustin kulturgunean. *Babia* antzezlanaren aurreestrenaldia egingo dute. Hain zuzen, Durangoko antzoki horretako oholtzan prestatu ditu azken urteetan Ganso & Cia taldeak bere lanak.

Clown teknika baliatu du *Babia* honetan ere Ganso & Cia taldeak, Renato eta Mediopelo lanetan bezala. Oraingoan, baina, Gorka Gansogaz batera Txefo Rodriguez aktoreak ere jardungo du antzezle lanetan.

Apirilean hasi ziren Iñaki Rikarte zuzendari gasteiztarragaz lanean

Lehenengo aldiz, taldetik kanpoko zuzendari batekin prestatu dute antzezlan. Apirilean hasi ziren lanean, besteak beste *André eta Dorine* obra zuzendu duen eta hainbat sari jaso dituen Iñaki Rikarte gasteiztarrarekin.

Duela bost urte Ganso & Cia taldea sortu zutenetik, sekula ez dute antzokirako ikuskizun bat sortu taldekideek. Zentzu horretan, antzokian "publikoa hain urrun edukitzea arraro egiten zaigu", esan du Gorka Ganso antzezleak: "Kalean lan egitera ohituta

gaude, antzezten gaudela bat-batean txakur batek eszena gurtzatzera...". Horregatik, ez daude ohituta antzokian bezala elementu guztiak "hain kontrolpean" edukitzera. "Dena dela, lan honetan ere gertatzen dira hainbat ezusteko", dio Rikartek.

"Publiko guztiarentzat, bereziki pertsonentzat egindako lana da"

Bereziki sei urtetik gorako ikusleentzako dago antzezlan pentsatuta, eta berbarik barik, keinue bitartez bakarrik, adiskidetasunari eta imajinazioari buruzko istorio bat kontatzen du. "Ikuskizuna publiko guztiarentzat, bereziki pertsonentzat", dela dio

Gorka Gansok. Umeei eta gurasoekizango dute gustuko. "Umeei asko gustatuko zaiela uste dut", esan du Arantza Arrazola San Agustin kulturguneko kudeatzaileak.

Umorea eta humanitatea oinarri dituen komedia poetikoa da, egileen berbetan, *Babia*. Egunerokotasunaren heroiak dira Ganso & Ciaren clownaren protagonistak, tentel eta gardenak: ikuslearengan barrea eta samurtasuna sortzen dutenak.

"Antzerkian ibilbide oso desberdinak izan ditugu hiru sortzaileok, eta hiruron ukitua dauka ikuskizunak", azaldu du Rikartek: "Horregatik da berritzailea". ■ I.E.

Bakoitza bere munduan, ilar-gian, bizi diren lagun bi dira *Babia* lanaren protagonistak. Elkarren ondoan urte mordoa eman arren, ez dutela elkar ezagutzen dirudi: "Hainbeste ezagutzen dute elkar, ezezagun bilakatu direla", esan du Gorka Gansok.

Kartoizko kaxaz betetako tailer batean bizi eta lan egiten dute. Egun batean, telefonoak jotze ari uzten dio, eta elkarri begiratze- ra behartzen ditu.

"Inguratzen dituenetik deskonektatuta bizi dira pertsonaia biak"

Leongo (Espainia) herri baten izena da *Babia*: egileek kontatu dutenez, Leongo erregea bertara erretiratzeko zen deskantsatzera. Hortik obraren izenburua: "Inguratzen dituenetik eta euren buruengandik deskonektatuta bizi dira pertsonaia biak".

### Ganso: "Hainbeste ezagutzen dute elkar, ezezagun bilakatu direla"

Inguratzen dituenetik eta euren buruengandik ere "deskonektatuta" bizi diren lagun biri buruz

"Naufrago bi dira protagonistak", Gorka Ganso aktorearen berbetan: "Mundu guztiak ahaztu ditu". Iñaki Rikartek esan du-

Kartoizko kaxaz betetako tailer batean bizi dira protagonista biak

nez, "fabula bat da *Babia*, eta negatiboa dirudien zerbaitetik gauza positiboak sor daitezkeela erakutsi gura dugu".



DURANGOKO LIBURU ETA DISKO AZOKA >



Guneen ordezkariak eta Gerediaga elkarteko kideek aurkeztu zuten egitaraua.

# Azoka baino astebete lehenago hasiko dira egitarau zabalagaz

Plateruenean, azaroaren 30ean izango da Liburu eta Disko azokaren lehenengo ekitaldia

Durangoko 47. Liburu eta Disko azokaren barruan, kulturagintzako zazpi eragilek bultzaturiko gune-tako egitarau oparoa aurkeztu zuten eguaztenean, EITBren Bilboko egoitzan: 300 ekintzatik gora programatu dituzte, aurten.

Areto Nagusian, Ahotsenean, Berbaro elkartearen Saguanbarahaur literaturaren txokoan, Iru-dienean, Szenatokian, K@bian eta

Plateruena kafe antzokian garatuko da egitarau zabal hori. Hain zuzen, Plateruenean emango zaio hasiera egitaruari, *Itzalen sua* ikuskizunagaz, azaroaren 30ean.

Nerea Mujika Gerediaga elkarteko presidentea eta Aiert Goenaga azokako zuzendariak azaldu dutenez, "Berbaro elkarteak, San Agustin kulturaguneak, Euskal Herriko Antzerkizale elkarteak,

Ahotseneak, Topaguneak, Plateruena Kafe Antzokiak eta Goiena Komunikazio Taldeak aurten lehen aldiz hartu dute esku", Durangoko Liburu eta Disko azokaren koordinazio batzarrean.

Durangoko azokaren zein Anbotoren webgunean eskura dago abenduaren 6tik 9rako ekitaldi eta proposamen guztien zerrenda. ■ I.E.

## GEURE DURANGALDEA

Fernan Ruiz  
Berbaroko kidea



### Eklipsea

Australiar hasi eta Txilerainoko mapa tartean bizi direnek eguzki eklipse osoa ikusi ahal izan dute joan den astean. Aborigenentzat eguzkiaren eta ilargiaren arteko maitasun istorioa da. Yhi eguzkia, Bahloo ilargiaz maiteminduta, atzetik dabil; eta hura ihesean. Gorputzarrek bat egin dute, ilundu egin du eta lurra hoztu. Yhiren suak, ordea, Bahloo urtu du eta badoa... Epeltzen hasi da.

Zeruari begira bizi ei dira Australiako aborigen puruenak, behatze horri esker hainbat ezagutza praktiko ateratzen baitute egunerokoari aurre egiteko. Sendabide asko bila ditzakete ortziari behatu eta bertan idatzitakoa legetzat hartuta. Halaber, errespetua erakusten diote Ama Lurrari, badakite-eta han sortu direla eta han topatuko dutela bizigai, babes eta atsedena...

Gu ordea, Lurra planetatik urrun, pantaila baten barruan bizi gara, haren menpe, makinatxo horren mekanismoen kapritxoetara lotuta; gure mundua han barruan dago ia osorik, gero eta gehiago. Lurrik, haizerik, urik, surik dagoen ere ez gara konturatzen, ez bada txakur-korotza gure oinetakoari itsatsita gelditu dela. Orduan bai su eta haize astindua eta, gero, lurra eta ura...

Herriko paisaia aldatzen ari zaigu, jasanezina egiten zait ikustea gazte eta heldu koadrilak denak begiak pantailari josita, atzamarrak dantzan hizki eta zenbaki artean, erabat harrapatuta berbak osatu guran edo batek jakin zertan.

Gure kaleetako paisaia aldatzen ari da, adarrak soiltzen, jendea bakartzen. Lagunartean garella, urlia makinatxoari zorriak kentzen dabil; sandia "barkatu, *WhatsApp* bidali didate" marmarrean, eta berendia Googlen ez dakit zein partida noiz den begira. Jasanezina. Maitasun istorio gabeko erabateko eklipsea. Aborigenengandik zerbait ikasi gura eta zeruari begira nago, hango konstelazioetako hizkuntzan zer ulertzen dudana. Utopia batzuk sumatu ditut: auzolana, boluntarismoa, parte-hartzea, elkartasuna eta besteren bat.

Aitor dezadan, ahaztu orduko, eklipsearen berri pantailadun makinatxo baten bidez izan dut.

## KRONIKA Bizkaiko Bertsolari Txapelketa

### Basauritik Bilbora, uste baino distantzia handiagoa dago

Eneko Abasolok eta Gorka Lazkanok ia ezinezkoa daukate finalera pasatzea

Joan zen domekan txapelketa lehenengo finalerdi jokatu zen Basaurin. Batek baino gehiagok, A8 autobidean zihola, zuzenean Bilboraino joateko tentazioa izango zuen. Baina, helbu-

Estiballesek irabazi zuen saioa; finalerako txartela ere bai

rua han bertan, alboan ikusi arren, azkeneko proba gainditu behar zen. Eta, Basauritik Bilbora uste baino distantzia handiagoa dagoela argi ikusi zen. Arkaitz Estiballesek irabazi zuen saioa,



## > Markel Onaindia

eta ondorioz, finalerako txartela ere bai. Gainerakoei puntuetan alde handia atera zien, eta Eneko Abasolo *Abarkas*-ek eta Gorka Lazkanok ia ezinezkoa daukate finalera sailkatzea.

Distiratu ezinik, baina akatsik egin barik eta bertsoak ondo josten ibili zen Abarkas. Laugarren sailkatuta, akaso ez zuen puntuetan hainbesteko alde egoterik merezi –bigarrenetik 33,5 puntura–. Lazkanok, bosgarren, desabantailatik egin zion aurre saioari: ahotsa urratuta eduki zuen ia hasieratik. Eztarriko ezinak ideietan eragin zion, seguruenik. Saioak amaiera aldean egin zuen gora, Estiballesek txapelerako hautagai dela gogorazari zigun une beretik.

Domeka honetan Ilgor Elortzak abestuko du Durangon

Domeka honetan Igor Elortzak abestuko du Durangoko Landako Gunean, eta hurrengoan Miren Amurizak eta Beñat Ugartetxeak Gernika-Lumon. Batek daki; baliteke, hemendik, Basauritik baino distantzia txikiagoa egotea Bilbora.

## MUSIKA >

### Orfeoiaren zuzendaritza berria aurkezteko emanaldia, bihar

Ikasturte berria zuzendaritza batzorde eta zuzendari berriagaz abiatu du Durangoko Orfeoiak. Arrate Bañeres de la Torre da presidente berria: orfeoiaren 130 urteko historian, lehenengoz dihardu emakume batek kargu horretan. Fernando Urain Debako kontserbatorioko irakasleak hartu du Durangoko Orfeoiaren zuzendari papera, ikasturte berrian. Zuzendaritza zein zuzendari berriak Durangon egingo dute lehenengo emanaldia, bihar iluntzean.

Musikariaren Zezili Deunaren egunaren harira antolatu dute biharko emanaldia, Andra Marin, 19:00etan. Zezili Deunaren aldeko meza kantatuko dute emanaldi horretan, lehenengo, eta erreperitorio "herrikoia" eskainiko dute, ondoren, Durangoko Orfeoiko 50 abeslariak. ■ I.E.

Fernando Urain da Durangoko Orfeoiaren zuzendari berria

LITERATURA > AURKEZPENEA

Gaur, 19:30ean, Durangoko Hitz liburudendan aurkeztuko dute Txomin eta Peru Magdalena anaia durangarrek *Txomintxo eta Perutxoren abenturak* liburua. Aurre-ratu dutenez, aurkezpena ume asko hurreratzen bada, liburu berriko ipuinen bat kontatuko diete egileek eurek: entzuleen araberako egokituko dute ekitaldia.

Zortzi urtetik aurrerako umeei zuzendurikoa da liburua, eta iaz Peru Magdalenak kaleratutako ipuineko —*Txomintxo eta Perutxo bakarrik geratu dira etxean*— pertsonajeen ibiliren kontakizunarekin jarraituta egin dute.

Zortzi urtetik gorako umeentzako bost ipuin batu dituzte liburuan

Bospasei urte zeuzkaten Txomin eta Peru protagonistek lehenengo liburu hartan. Ipuin bakarra kontatzen zuen Peru Magdalenak idatzirik *Txomintxo eta Perutxo bakarrik geratu dira etxean* liburua. Bost ipuin batzen dituen liburu da, aldiz, Txomin eta Peru Magdalenak asteon aurkeztu duten hau. Durangoko anaien tes-

# Txomintxo eta Perutxoren abentura berriak Hitz liburudendan entzungai

Gaur, Durangoko Hitz liburudendan aurkeztuko dute Txomin eta Peru Magdalenak 'Txomintxo eta Perutxoren abenturak'

tuak eta Iosu Mitxelenaren ilustrazioak batu dituzte.

Magdalena anaiek idatzirik ipuinak dira *Txomintxo eta Perutxoren abenturak* liburukoak. Egileen izeneko bi protagonisten ibilerak kontatzen ditu bigarren liburu honek ere. Protagonistak amaren sabelean daude liburu lehenengo ipuinean.

Txomintxok eta Perutxok eskolako jantokian bizi dituzten abenturak eta beste hainbat ibilera kontatzen dituzte azken liburu honetan.

"Lehenengo liburua misteriosoagoa zen, beldurrei aurre egiteari buruzkoa", dio Peruk. "Hau dibertidoagoa eta ganberroagoa da, beharbada", osatu du Txomin. "Azken ipuin biak 'fantasio-soagoak dira', egileen berbetan.

Durangoko azokan, Elkarren standean egongo dira egileak, lan berria erakusten. ■ I.E.



MUSIKA > EMANALDIA



## Ruper Ordorika gonbidatu dute Kantuaren Kantoia zikloa ixtera

Azaroaren 29an, 20:00etan da Kantuaren Kantoia zikloaren azken emanaldia

Ruper Ordorika musikariak joko du Durangoko Plateruenerako Kantuaren Kantoia laugarren eta azken emanaldian. Azaroko aurreko hiru saioak bezala, Jonan Hernandez kazetariak gidatuko du azaroaren 29ko saio hori.

Estudioan sartuta eman ditu azken asteak Oñatiko musikariak, baina momentuz grabazio horiek disko bilakatuko diren ez du konfirmatu: "Taldearekin entseguitan eta agertzen diren ideiak biltzen ari gara", azaldu zuen duela gutxi, Berria egunkariari eskainiriko elkarrizketan. Estudioan gauza interesgarriak sortuz gero, hurrengo diskoan entzungai izan-

Bandako hiru musikariak barik, bakarrik jardungo du Ruper Ordorikak

Oso gustura ibili dira laugarren edizioan ere publikoa eta musikariak

go direla dio. Ruper Ordorikak lau urte daramatza Arkaitz Miner, Lutxo Neira eta Hasier Oleaga musikariekin taldean jotzen, baina bakarrik jardungo du Plateruenerako eguneko kontzertuan.

Oso gustura ibili dira Kantuaren Kantoia zikloaren laugarren edizioan publikoa eta musikariak: eteko giroa, gustura egotekoa sortu da, aurtun ere. Formatu berria delako, urduri samar abiatzen dute sarritan musikariak saioa, baina laster egokitu dira kantuak eta kontuak tartekatuz.

Atzo Balerdi Balerdi taldeko Toño Murok jardun zuen Kantuaren Kantoiko oholtzatik. ■ I.E.

### PLATERUENA Durangoko Kafe Antzokia

www.plateruena.net

**AZAROAK 24 13:30ean**  
KANTUZALEEN TXOKOA  
Santa Anatik hasita, kalez kale.

**AZAROAK 24 19:00etan**  
AIKO ERROMERIA  
DANOK DANTZARA

**AZAROAK 25 20:30ean**  
MESHUGGAH+DECAPITATED+  
CB MURDOC. Sarrera: 23-26 euro.

**AZAROAK 28 20:00etan**  
MUGARIK GABE  
DOKUMENTAL EMANALDIA. Doan.

Eguneko menua astelehenetik larunbatara  
Landako etorbidea, 4a 48200 Durango Tel.:946 030 300

**JUDITH FERNANDEZ**  
PIANO KONTZERTUA

**XXIII. Musika hamabostaldia**  
Bartolome Ertzilla Musia Eskola

The Devin Townsend  
Azaroak 24 20:00  
taldeek ere joko dute

San Agustin  
KULTUR  
GUNEA  
DURANGOKO UDALA

**Hitz**  
liburu-denda

artekalea 14,  
durango (bizkaia)  
info@hitzliburudenda.com  
946 810 776

# Durangaldeko **berbalagunen** IV. Kultur Lehiaketa

<b>1. Durangaldeko zein dantza taldek ospatu du aurten XXX. urteurrena?</b> a) Elorrioko Besaidek b) Durangoko Kriskitinek c) Abadiñoako Iluntzek	<b>2. Zein da Elorrion antolatu duten argazki lehiaketaren gaia?</b> a) Herriko Ondarea b) Euskarari begiratzeko moduak c) Bizkaiko landaredia	<b>3. Zergatik esaten zaio "tronperri" Durangori?</b> a) Herejeak tronpa bidez komunikatzen zirelako b) Mozkor asko zegoelako c) tronpa-jokuan abilak zirelako	<b>4. Zelan egin zuen ihes Joseba Sarrionandiak Martuteneko espetxetik?</b> a) bozgorailu baten sartuta b) ziegan zuloa eginda c) bisitari baten ordeztu
<b>5. Gerediagako Batzarretan zein aulki zegokion Zaldibarri?</b> a) laugarrena b) zazpigarrena c) hamalagarrena	<b>6. Noiztik da Durangoko Merindadea Bizkaiko Jaurerriaren parte?</b> a) Jaurerria sortu zenetik b) 1212tik c) 1320tik	<b>7. Zelan dauka izena Abadiñoako mikologia taldeak?</b> a) Errotari b) Gibelurdin c) Geredixa	<b>8. Zein santuri egiten dio omen Urkiolako santutegiak?</b> a) Paduako San Antoniori b) San Antonio Abateari c) aurreko biel
<b>9. Noiz ospatuko da Bizkaiko Bertsolari Txapelketaren finala?</b> a) abenduaren 2an b) abenduaren 15ean c) abenduaren 23an	<b>10. Zein udalerritan dago Butroetarren gaztelua?</b> a) Gatikan b) Plentzian c) Mungian	<b>11. 2013. urtean zenbatgarren Korrika ospatuko da?</b> a) 17 b) 18 c) 19	<b>12. Nor izan da Ipar Euskal Herriko bertsolari txapelketako irabazlea?</b> a) Amets Arzallus b) Hodei Barroso c) Sustrai Colina
<b>13. Noizkoa da Mikeldiko Idoloa?</b> a) Burdin Arokoa b) Erromatarren sasoikoa c) Erdi Arokoa	<b>14. Gozategi musika taldearen azken lana:</b> a) All stars b) Stars all c) Izar guztiak	<b>15. Nongoak dira lau t'erdiko txapelketaren finaleko pilotariak?</b> a) nafarrak, biak b) nafarra eta bizkaitarra c) nafarra eta gipuzkoarra	<b>16. Durangaldeko zein herritan dago Dario de Regoyos kalea?</b> a) Elorrion b) Abadiñon c) Durangon
<b>Izen-abizenak eta telefonoa:</b>		Erantzun zuzena markatu, eta entregatu herriko edozein euskaltegitan edo euskara-zerbitzuan, abenduaren 2a baino lehen.	

► SARIA: LIBURU-SORTA EDERRA ◀



# berbalagun praktikatu gurekin!



### Izena emateko lekuak

**DURANGO:** AEK euskaltegian, Udal euskaltegian, Hizkuntza Eskolan eta Berbaron.  
**ELORRIO:** AEK euskaltegian eta Euskara Zerbitzuan.  
**ATXONDO:** Kultur Etxean.  
**MAÑARIA:** Kultur Etxean.  
**IURRETA:** Ibarretxe Kultur Etxean.  
**ZALDIBAR:** Udaletxean.  
**ABADIÑO:** Errota Kultur Etxean.  
**BERRIZ:** AEK euskaltegian eta Euskara Zerbitzuan.  
**IZURTZA:** Udaletxean.  
**OTXANDIO:** Udaletxean.

### Informazioa

#### INFORMAZIOA

639 400 786

[www.durangaldea.blogspot.com](http://www.durangaldea.blogspot.com)

[durangaldea@aec.org](mailto:durangaldea@aec.org)

Parlaide guztiak EHUko kredituak eskuratu ahal dituzte, bidaia eta egonaldietarako deskontuak, AIZUI, ARGIA eta BERRIA merkeago...



# Azaroaren 25a

Emakumeen aurkako  
Indarkeriaren kontrako  
Nazioarteko Eguna



**TRATU TXARREN BIKTIMA DIREN EMAKUMEENTZAKO  
LAGUNTZA JURIDIKO ETA PSIKOLOGIKORAKO  
ZERBITZUA**



Durangoko Merinaldearen  
Amankomunazgoa  
Mancomunidad  
de la Merindad de Durango

**Tel.: 94 620 04 92**



# BELDUR BARIK

## AZAROAK 25

EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAREN KONTRAKO NAZIOARTEKO EGUNA

### OSTIRALA 23 KONTZENTRAZIOA

Durango Udalak, Durango Berdintasunerako Udakontseiluak deitutako kontzentrazioan parte hartzea animatzen zaitu.  
Tokia: Udaletxeko plazan. Ordua: 13:00etan

### LARUNBATA 24

#### "BELDUR BARIK" III.TOPAKETA (Gasteizen)

Erakusketak, tailerrak, trueke gunek, antzerkiak, herri bazkaria, Beldur Barik kalejira...

### IGANDEA 25 MANIFESTAZIOA

Durango Udalak, Durango Plataforma Feministak antolatutako manifestazioan parte hartzea animatzen zaitu.  
Tokia: Andra Mari. Ordua: 13:00etan

### ASTEARTEA 27 HITZALDIA

"Sin mí no soy nada. Del amor y sus violencias". Itziar Ziga.  
Tokia: Pinondo etxea. Ordua: 19:30ean  
Antolatzailea: Durango Andra Gunea

### ASTEAZKENA 28 HITZALDIA-DOKUMENTALA

"Msilale Wanawake: Mujeres de Kiru Sur caminando"  
ACNUR Euskal Batzordea-CEAR Euskadi  
Tokia: Pinondo etxea. Ordua: 18:30ean  
Antolatzaileak: Durango Gizarte Ekintza eta Inmigratio Arloak

# ...hamaika jarrera hamaika aukera!

[www.beldurbarik.org](http://www.beldurbarik.org)



**████ ZALDIBAR**

# Saturrarango emakumeen kartzela berbagai izango dute

Gonzalezek Saturrarango emakumei buruzko hitzaldia emango du; ondoren filma eskainiko dute

“No lloréis, lo que tenéis que hacer es no olvidarnos” liburua aurkeztuko du Maria Gonzalez Gorosarri kazetariak, gaur, 18:00etan liburutegi zaharrean. Liburu honetan, Gonzalezek Saturrarango kartzelan 1938tik 1944ra egondako emakumeen testigantzak jaso ditu, Edu Barinaga Baleuko ekoiztetxe-

meen figura aldarrikatu gura dugu; emakume izateagatik bakarrik zigor berezia jaso zutelako emakumeek”.

Ondoren, liburuko testigantzetan oinarrituta, Mikel Ruedak zuzendu eta Baleukok ekoiztutako *Izarren Argia* filma proiektatuko dute. Egileen berbatan, “filma-  
ren helburua Saturrarango kartzelan gertatutakoaren egia gizarteratu, eta oroimen historikoa berreskuratzeko bidean, gure aletxo ipintzea izan da. Gure esparrua da eta jende askorengana ailegatzeko aukera eskaintzen duenez, zinema hautatu dugu bitarteko”.

**Zapatuan emakume gazteei zuzendutako biodantza ikastaroa eskainiko dute**

**Domekan, 12:00etan, kontzentrazioa deitu dute Lehendakari Agirre parkean**

ko arduradunarekin batera. Kazetariaren esanetan, “memoria historikoari buruz berba egiterakoan batailak, fusilatua, gerlariak... aipatzen dira, eta gutxitan egiten da berba emakumei buruz. Proiektu hau guztia emakumearen ikuspuntutik eginda dago. Emaku-

**Asteburuko egitaraua**  
Zapatuan emakume gazteei zuzendutako biodantza ikastaroa eskainiko dute, 11:00etatik aurrera. Gaueko 22:00etan, berriz, *La mujer sola y ¿sexo? gracias por no despreciar* antzezlan taularatuko dute.

Domekan, 12:00etan kontzentrazio deitu dute Lehendakari Agirre parkean. Ekitaldia emakumeen aurkako indarkeriaren kontrako idatzia irakurriko dute.

**████ DURANGO**

# Kontzentrazioa eta manifestazioa genero indarkeria salatzen

Gaur udaletxeko plazan batuko dira; domekan, manifestazioa abiatuko dute Andra Mariatik

Azaroaren 25aren harira antolatutako ekimenak gaur bertan hasiko dira. Durangoko Udalak eta Berdintasunerako Udal Kontseiluak kontzentrazioa deitu dute gaur, 13:00etan, udaletxeko plazan, eta herritar guztiei bertaratzeko dei egiten diete. Domekan, 13:00etan, udalak eta Durangoko Plataforma Feministak antolatuta, manifestazioa irtengo da Andra Mariatik.

Durangoko Andraguneak antolatuta, Itziar Ziga idazle eta feminista errenteriarrek *Sin mi no soy nada; del amor y sus violencias* izeneko berbaldea eskainiko du datorren martitzean, 19:30ean, Pinondo Etxean. Maitasuna, biolentzia, eta norberaren jabekun-

tzaren garrantzia izango dira berbaldean jorratuko dituen gaietako batzuk.

Eguaztenean, errefuxiatuei laguntzeko ACNUR Euskal Batzordeko eta CEAR Euskadiko orde-

**Genero arrazoiengatik gertatutako jazarpenak izango dituzte berbagai, eguaztenean**


kariak genero arrazoiengatik gertatzen diren jazarpenen gainean jardungo dute Pinondo Etxean. *Msilale Wanawake: Mujeres de Kiru Sur caminando* izeneko hitzaldi-dokumentala eskainiko dute, 18:30ean. Ekimena Durangoko Gizarte Ekintzak eta Immigrazio Batzordeak antolatu dute.

Azkenik, zapatuan Gasteizen egingo den Beldur Barik ekimeneko topaketa erraldoira joateko deia ere egin dute.

**Gaur, kontzentrazioa egingo dute 13:00etan Durangon, udaletxeko plazan**




Izarren Argia filmeko argazkia.



## Azaroak 25

### Emakumeenganako indarkeriarik ez!






**Azaroaren 23a, barikua**  
18:00etan Liburutegi zaharrean.  
LIBURUAREN AURKEZPENA: “No lloréis, lo que tenéis que hacer es no olvidarnos”. Maria González Gorosarri, liburuaren idazlea.  
FILMA: “Izarren argia”.

**Azaroaren 24a, zapatua**  
11:00etan Gaztetxean.  
BIODANTZA TAILERRA, emakume gazteentzat.  
22:00etan Liburutegi zaharrean.  
ANTZEZLANA: “La mujer sola y ¿sexo?, gracias por no despreciar...”.

**Azaroaren 25a, domeka**  
12:00etan Lehendakari Agirre parkean.  
KONTZENTRAZIOA.  
Emakumeen kontrako indarkeriaren aurkako adierazpenen irakurketa.

Hautzaindegi zerbitzua egongo da eskatzen dutenentzat  
Epe bukaera: azaroak 21, udal-bulegoetan, 94 682 7016.

ELORRIO

# Emakumea eta gizona, paperak aldatuta

Elorrioko Institutuko talde batek Beldur Barik sariketan egindako lana bozkatuenetakoa izan da

S ortzailez betetako institutua da Elorriokoa. Iaz Bizkaiko ideien lehiaketan ikasle talde bat gailendu zen; artista gazteen Izarren Distira Korleone elorriarrek irabazi zuten; eta Beldur Barik sariketan aurreneko postuetan dabilta. June Graña eta Xabi Malaxetxebarria ikasleek eta Iñigo Sourrouille irakasleak bideo bat aurkeztu dute Beldur Barik lehiaketan, eta hamar bozkatuenen artean geratu dira. Gainera, oraindik sariren bat irabazteko aukera daukate. *Zer nahiago?* deitzen da euren lana. Hamabost urteko gaz-

teak dira Graña eta Malaxetxebarria, eta DBHko laugarren mailan dabilta.

Ez dute egun batetik besterako lana egin. Gainera, hasiera bateko asmoa ez ei zen lehiaketara aurkeztea. Malaxetxebarriak dio, duela urtebete hasi zirela bideoa egiten, eta gero Sourrouilleri otu zitzaiola sariketara aurkeztea. Orduan, bideoa apur bat moldatu zuten.

**“Norbera, norberarena da”** Istorioaren oinarria liburu batetik hartu ei zuten. Gizon batek begiak emateko eskatzen dio emakumeari hasieran. Gero, beste gorputz atal batzuk eskatzen dizkio: besoa, hanka, belarria... Azkenean burmuina eskatzen dio. Gizonak, eskuekin burmuina hartu eta jolastu egiten du amaiera aldera. Sourrouillek lanaren ideia azaldu du: “Norbera norberarena da, ez beste inorena”. Batez ere edizioaz arduratu da Sourrouille. Irakasleak esan du, bideoak egitera ohi-



Horrelako gai serio bat lantzen zuten lehenengo aldia izan da

tuta daudela, baina umore kutsukoak, batikbat. Horrelako gai serio bat lantzen zuten lehenengo aldia izan da. Ikasle bien maila ona azpimarratu gura izan du irakasleak. Bideoan, Graña gizonarena egin

du, eta Malaxetxebarriak emakumearena. Genero aldaketaz galdetuta, honako arrazoi hau eman du Malaxetxebarriak: “Mutil batek, emakumeak zelako sentimenduak dauzkan jakiteko eta alderantziz”.

Bozkatuenen artean geratu dira; oraindik sariren bat irabazteko aukera daukate

Sourrouille, ideiaz: “Norbera norberarena da, ez beste inorena”

## BELDUR BARIK TOPAKETA 2012



AZAROAK 24!  
ARTIUM GASTEIZ

ZATOZ! BILBAO, DONOSTIA eta ARABATik autobusak dohan //

16:30-19:30 TAILERRAK:GORPUTZA//AUTODEFENTSA//IKUS-ENTZUNEZKOAK//KOMIKI MURALA  
19:30 LUNTXA//EKINTZA KOLEKTIBOA  
20:00-22:00 TEATRO-MUSIKA-PERFORMANCE ERAKUSKETA

+ BELDUR BARIK SARI BANAKETA

Emakumeen kontrako indarkeriaren aurrean, hamaika jarrera...hamaika aukera!



**Azaroaren 24a, larunbata**

Gasteizen Artium museoan, Beldur barik topaketa.

**Azaroaren 25a, domeka**

Egun osoan zehar: puntu morea ipini etxeko leihoan.  
13:00etan Herriko Plazan Kontzentrazio isila  
20:00 Arriola ZULOAK dokumentala

**Azaroaren 26a, astelehena**

20:00 Arriola ZULOAK dokumentala

info+ www.beldurbarik.org







Grañak azaldu du, beretzako gauza berria izan dela gizonaren pape-  
ra egitea: "Iaz ere egin genituen  
bideo batzuk Iñigogaz, baina beti  
egiten nuen emakumearena". Adi-  
bidez, ahotsa aldatzea asko kos-  
tatu zaio, bere iritziz.

**Institutuan bideo-antzerkia,  
dekorazioa eta edizioa ikasi  
ahal dituzte gazteek**

Bideoan islatu gura izan duten  
mezuaz berba egin du Malaxetxe-  
barriak: "Emakumeek eta gizonen  
eskubide eta betebeharrak berdina  
eduki behar dituzte".

**Zaletasuna, ikasgaietatik**

Institutuan bideo-antzerkia, deko-  
razioa eta edizioa ikasi ahal dituz-  
te gazteek, aukerako ikasgaietan  
dauzkate-eta. "Pena da iazko ikas-  
turtean bakarrik eduki izana", esan  
du Grañak. Hortik datorkie gazte  
bi hauei antzezpenerako zaletasu-  
na, eta antza denez, hemendik  
aurrera ere jarraituko dute. Grañak  
dio segitu gura duela, baina zaila  
dela antzezte. Malaxetxebarriak  
kobentzituta aitortu du bere bizi-  
moduan zati garrantzitsu bat izan-  
go dela, akaso ikasketak ere hor-  
tik bideratzeraino.

Bihar Beldur Barik topaketa-  
ra joango dira, eta badaukate sari-  
ren bat ekartzeko esperantza. Bai-  
na, Sourrouilleren berbetan, "saria  
jada lortu dugu".

**Bideoan, Grañak gizonarena  
egin du, eta Malaxetxebarriak  
emakumearena**

**BERRIZ**

# Indarkeria sexistari buruz jardungo dute Gaztetxeko tailerrea

*No estas sola, Sara* filmagaz hasiko da, udalak  
azaroaren 25erako antolatu duen egitaraua

Berrizko kultur etxea eta Urtiaga  
plaza izango dira domekan, emak-  
umeen aurkako biolentziaren  
kontrako jarrera adieraziko duten  
berri-tarren elkargune nagusiak.  
Hamahiru urtetik gorakoentzako  
gomendaturiko film baten emanal-  
diak zabalduko du egitaraua: *No  
estas sola, Sara* emango dute,  
12:00etan, Berrizko kultur etxean.

**DBHko ikasleek Beldur Barik  
lehiaketara aurkezturiko lana  
ere izango da ikusgai**

Egiako istorio batean oina-  
rriturikoa da filma, eta tratu txar-  
rak jasan dituen 23 urteko emak-  
umearen azalean dihardu Amaia  
Salamanca aktoreak film horretan.  
Terapia psikologikoari esker, bere  
historiari buruz berba egitea lor-  
tuko du protagonistak.

Film emanaldi horren ostean,  
DBHko ikasleek Beldur Barik lehia-  
ketara aurkezturiko ikusentzu-  
nezkoaren emanaldia egingo dute,

13:10ean, kultur etxean. Beldur  
Barik "komiki mundialaren" era-  
kusketa ere egingo dute.

Urtiaga plazan kontzentra-  
zioan batuko dira ondoren berriz-  
tarrak, 13:30ean, *Emakumeenga-  
nako indarkeriari ez!* lemapean.

**Gaztetxean, sustraietara**

*Goazen sustraietara* goiburua gaz,  
genero sistemei, harreman motei,  
maitatzeko moduei, nortasun erai-  
kuntzari eta beste hainbat gairi  
buruz gogoeta egingo dute, Hilde-  
gixe Gaztetxean, domekan. Indar-  
keria sexista identifikatu eta horri  
aurre egiteko baliabideak landu-  
ko dituzte parte-hartzaileek. Goi-  
zoko 11:00etan hasiko da tailerra-  
ren lehenengo parte, eta elkarre-  
kin bazkaldu ostean, 15:00etan  
ekingo diote bigarren parteari.

Bestetik, etxeko leihotetan  
puntu morea ipiniz, emakumeen  
aurkako biolentziaren kontrako  
jarrera adieraztera gonbidatu ditu  
udalak berriztarrak. Udaletxean,  
kultur etxean edo kiroldegian  
eskuratu daiteke.

# BELDUR BARIK JARRERA

## Beldur Barik topaketa egingo dute bihar, Gasteizen

Gazteek gaiari buruz pentsatzea gura dute Beldur Barik-en eratzailleek

Beldur Barik egitasmoa duela hiru  
urte sortu zen, lehiaketa baino  
prozesu bat izateko helburuagaz.  
Modu horretan, gazteek gaiari  
buruz pentsatzea gura zuten. Bihar  
kongresua egingo dute Gastei-  
zen, Artium museoa. Arratsalde-  
ko 16:15ean hasiko da, azaldu  
dutenez.

Udal mailako Berdinsarean  
lan egiten duten berdintasun tek-  
nikariek honako datu hauek ira-  
kurri zituzten: EAEko salaketen  
%42, 32 urtetik beherako emaku-  
meenak izan ziren. "Bikote esparru-  
ko tratu txarrez gainera, indar-  
keria sexistak hamaika aurpegi  
ditu, eta neskek alderdi askotan  
pairatzen dute, askotan oharka-

**Egitasmoa duela hiru  
urte sortu zen, prozesu  
izateko helburuagaz**

**Prozesua behar bati  
erantzuteko ipini zuten  
martxan**

bean: kalean, klasean, gauean eta  
familian, alegia". Hortik etorri zen  
ideia. Gainera, *Beldur Barik jarre-  
ra* zabaldu gura dute: berdinta-  
sunaren aldeko eta indarkeria  
sexistaren kontrako konpromi-  
soa.



# AZAROAREN 25a

"EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAREN KONTRAKO NAZIOARTEKO EGUNA"

**Adierazi emakumeen aurkako indarkeriaren kontrako  
jarrera etxeko leihotetan puntu morea jarriz**

**12:00etan, "NO ESTAS SOLA, SARA"**  
filma. Berrizko Kultur Etxean.

Generoa: Drama  
Iraupena: 64 min.  
Publikoa: 13 urtetik  
gorakoentzat



**13:10ean, Beldur Barik komiki mundialaren bineta**  
erakusketa eta Berrizko BHko 2. mailako  
ikasleek egindako Beldur Barik ikus-  
entzunezkoaren proiektzioa. Berrizko  
Kultur Etxean.



**13:30ean, Emakumeen aurkako indarkeriari ez!**  
Kontzentrazioa. Urtiaga plazan.



**PUNTU MOREA, EMAKUMEEN AURKAKO  
INDARKERIAREN KONTRAKO IKURRA,  
HERRIKO GUNE HAUETAN ESKURAGARRI:**

- Berrizko Udaletxea.
- Berrizko Kultur etxea.
- Berrizko Kiroldegia.
- [www. Berriz.org](http://www.Berriz.org)





### Itziar Ziga

- Feminista eta idazlea
- Errenteriarra da. Bartzelonan bizi da azken urteotan

# “Maitasun erromantikoaren ideia gainditu beharko genuke”

*Sin mí no soy nada, del amor y sus violencias* hitzaldia eskainiko du Itziar Ziga idazle feministak, azaroaren 27an, Pinondon.

**B**ikote harreman heterosexualetan botere harremanak egon izan dira belaunaldiz belaunaldi. Jendartean guztiz errotuta dauden jarrera batzuri buruz berba egingo du Itziar Zigak, datorren martitzenean Pinondon eskainiko duen hitzaldian. Maitasun erromantikoaz, gizon eta emakumeen rolez eta indarkeria matxistaren aurrean feminismoak eskaintzen dituen irtenbideez hitz egingo du.

#### *Maitasuna eta haren indarke-riak... Menpekotasunen gainean berba egingo duzu?*

Maitasun erromantikoaren ideia gainditzeko premia handia daukagu. Bikote heterosexualaren markoan, maitasun erromantiko itxaroteko hezi gaituzte emakumeak, eta benetan bizi dene- tik hurrin dago hori. Beti dauka- gu bera aldatuko den itxaropena, maitasunaren boterean sinisten dugu, eta pentsatzen dugu gure maitasunak lortuko duela harre- manak aurrera egitea. Horrelako- rik barik, arinago ikusiko genituz- ke indarkeria eta mespretxuak, eta egoera horietatik irtetea erra- zagoa izango litzateke.

#### *Barneratuta dauden jarrerak al dira?*

Indarkeria matxista guztiz estruk-

turala da. Egia da edozein ema- kumekeo gizonek hartu dezakee- la bere harremanean abusuzko jarrera, baina oso desberdina da jendarteak babesten bazaitu, eta hori gizonen pasatzen zaie baka- rriek. Etxean ikusi ditugun harre- manetan, inguruan, zineman, tele- bistan... Idealizatuta dago emaku- meen sumisioa. Rol pasiboazaten dute harremanean, bestearen zaintzara begirakoa. Gizonen rol aktiboa jasotzen dute euren erre- ferentzietatik, erabakiak hartzekoa eta zainduak izatekoa. Hori bera, gureganako biolentzia da. Ez digu- te uzten guk gura dugun kartekin jolasten, erabaki gura duguna egi- teko aktibo izaten.

#### *Zer pauso eman behar dira jarre- ra horiek aldatzeko?*

Feminismoa da giltza, zalantza barik. Jarrera aldaketarako kon- tzentzia hartu behar dugu, ema- kume eta gizonen. Feminismoa emakumeok garatu dugu, baina beti hartzen ditugu pozik borro- ka honetara gehitzen diren gizo- nak. Sistema zalantzan jartzeko premia dago, eta indarkeriaren kontrako legeak eta beste neurri batzuk ez dute hori egiten; ada- bakiak ipintzen dituzte. Birplan- teatu egin behar dugu maitemin- tzen garen modua, idealizatu diren bikote motak...

#### *Zelakoak izan behar dira harre- man osasuntsuak?*

Bi pertsonak egoera onean egon behar dira, benetan gura dutena eta behar dutena negoziatzeko moduan. Harremaneko erabakiak bi pertsonen araberakoak izan behar dira, ez batek esaten due- naren ingurukoak. Emakumeak eta gizonak inozoak gara. Inork ez du gura harreman batean gutxie- tsia sentitzea; beste gauza bat da, jendarte egitura batek horrelako gauzak bultzatzea. Adibidez, nire- tzako, izugarria da zure bikoteki- deari harreman sexual kopuru bat eman behar diozula pentsatzea, harekin konplitu beharra eduki- ztea. Gure amei askotan entzun izan diegu hori esaten. Benetan desiatu barik, gizartean oso onar- tuta dago bikotekideari orgasmo kopuru bat eskaini behar diogu- la pentsatzea. Hori ezin da nahi- taezkoa izan.

#### *Jende askok pentsatu dezake gaur egun aukera berdintasuna dagoela, eta horiek kontuok aspaldikoak direla.*

Sistemak mugimendu feministak lortutako aldaketak bere egiten ditu, eta aurrerapen txiki bat egon dela ematen duenean, dena alda- tu dela esaten du. Indarkeria matxistaren aurrean, adibidez, feministek egindako lanari esker,

“Indarkeria matxista guztiz estrukturala da; idealizatuta dago emakumeen sumisioa”

“Harremaneko erabakiak bi pertsonen araberakoak izan behar dira”

“Sistema hobetzen dabilela-eta, lasai egoteko esaten digute; ez jarraitzeko borrokan”

neurri batzuk hartu dituzte, eta jada ez dela zertan borrokatu esa- ten dute; lortu dela jendarte pare- kide bat. Análisi kritiko bat eginez gero, leku guztietan ikusten ditu- zu diskriminazio egoerak. Estatis- tikei begiratuta, argi ikusten da emakumeok gizonen baino gutxia- go kobratzen dugula oraindik ere. Sistema hobetzen dabilela-eta, lasaitzeko esaten digute, ez jarrai- tzeko borrokan. Baina beno, ez dugu kasurik egin, eta borrokan jarraituko dugu beti.

#### *Itxaropentsu?*

Badago tximino espezie bat lilu- ratu egiten nauena. Geneetan giza- kien oso antzerakoak dira. Tximi- no hauek gatazkak enpatiagaz eta sexuagaz konpontzen dituzte, oso dibertigarria da. Lehenago, baina, ez ziren horrelakoak; arrekemeak menpean hartzen zituzten. Arbo- letan gora ibiltzeaz gainera, tximi- no hauek lurrean ere ibiltzen dira. Horri esker, ar batek eme bat era- sotu nahi zuen bakoitzean, emeak defendatzen hasi ziren, biribilean ipinita. Orain ez dago horrelako indarkeriarik euren artean. Arlo horretan, gu baino aurreratuago daude. Itxaropentsua iruditzen zait elkartu eta defendatzen gare- nean gizarteko joerak eta paradig- ma bera ere aldatu daitekeela pen- tsatzea. ■ A.U.

DURANGO

ERROTARITXUENA

# Arriskurik gabeko aukera bat

*Denbora ziurtatzen ari da*

## Egiazta ezazu!



**%100 - raino finantzaketa**

- Baldintzarik onenetan
- Idatziz bermatua

SabadellGuipuzcoano



**2 log. 204.000€**-tik aurrera + BEZ

**3 log. 268.000€**-tik aurrera + BEZ



[www.sukia.com](http://www.sukia.com)  
[www.solvía.es](http://www.solvía.es)

**sukia**  
Zure etxean zaude.  
Estás en tu casa.

946 46 20 41

## IRITZIA &gt;

gutunak@anboto.org

## ■ Sei hankako mahaia

Idoia  
Agorria  
PSE-EE

## Lorpen nagusia

Durangoko EAJ-PNV alderdiak izan duen lorpen nagusia ez da akordioak egitea, baizik eta oposizioa batzeko gauza izatea. Alabaina, gutxiengoan gobernatzen ari denez, akordioak ezinbestekoak dira.

EAJ-PNVren azken ateraldia Durangorako beharrezko bi proposamen aurkeztea izan da: bat, Hiri Antolamendurako Plan Orokorren hurrengo eta nahitaezko berrikuspenean parte hartzeko diagnostikoa; eta, bestea, dendariekin lankidetzan aritzeko hitzarmena. Gu durangar gehien ordezkaritzan aritzen gara, eta, gure ustez, bi tresna horiek ezinbestekoak dira gure herria, egungo beharrezko arabera, hiri- eta ekonomia-aldetik garatzeko.

## Durangoko EAJk izan duen lorpen nagusia oposizioa batzeko gai izatea da

Gobernu-taldeak hiritarren parte-hartzean eta merkataritzan egin dituen urrats guztiak oinarritzeko izan dira, eta gainerako alderdiek bultzatu dute horretara. Udaleko teknikari, politikari eta dendarien elkarteek eratuak PERCO mahaiaren eginkizun nagusiak honako hauek dira: azterlanean jasota dauden ekin-tzei lehentasuna ematea, eta ekin-tza horiek gauzatzea, herritarrek parte hartzeko batzordea sortzea, ordenantza prestatzea, baserritarren merkaturaren dinamizatzea... Hortaz, ez da kezkatzen herritarrek eta eragile sozio-ekonomikoek Durangoko Udalarekin duten eragin-trukea sustatzea. Zergatik? Zergatik ez zaie ezinbestekoa iruditzen?

Tokiko Agenda 21 foroan, udal-kontratuak dituzten enpresetako kideak, politikariak edo teknikariak dira gehienak; arian-arian, herritarrek gero eta gutxiago hartu dute parte foro horretan. Oposizioak horretara behartu gabe EAJ-PNVk egin dituen urrats bakarrak Tokiko Agenda 21 foroak jaso dituen sariak hartzea izan da: "itsuen herrian, betokerra alkate".

## Smurfiten adibidea

Gure lan baldintzen aurka pairatzen ari garen erasoaldiak ezin digu ahaztarazi "krisi ekonomikoa" sortu zuten arrazoiak, krisi ekonomikoa funtsean iruzurra baita. Ez gure soldatek ez gure Hitzarmen Kolektiboek ez dute zerikusirik izan bizitzaren ari garen egoera tamalgarri honekin.

Gure soldatei dagokien, oso nabaria da erungo egoeraren errudunak lan kosteak direla diotenak gezurretan dabilzala, langileoi leporatu nahi baitiete egun enpresek bizi duten arazoaren erantzukizuna. Honekin zerikusirik ez duten arazoak bestelakoak dira: merkatu arazoak, kudeaketa zaborra edota finantziario arazoak. Honela, euren asmoa da gure soldatek betetzea finantza erakundeek betetzen ez dutena, alegia enpresei doako maileguak ematea gure lan baldintzen kontura. Eta hau guztia, une gogorra aprobetxatuz, hainbeste kosta zaizkigun eskubideak lapurtzeko.

Gure Hitzarmen Kolektiboek dagokien, aitortu beharra dago azken Lan eta Negoziazio Kolektiboaren erreforma oraina eta geroa ezartzen duela Negoziazio Kolektiboaren egituraren. 2013ko uztailan berri ez diren lan hitzarmen guztiak beren iraupena galdu dezakete. Honek milaka langileren lan baldintzetan hamarkadetako atzerakada eragin dezake. Eta guk ezin dugun hau onartu.

Horregatik, ordua da gurea defendatzeko eta gure negoziario kolektibo bertan garatzeko lan harremanen euskal esparrua ez dugunez, argi izan behar dugu erreforma hau gerarazi dezakegula antolatutik gauden enpresatan, erreforma berak aitortzen duelako enpresa eremua dela lan baldintzak negoziatzeko esparrua. Bide horretan, adibide argiak ditugu egikaritzeko ongi antolatutiko lan sindikalaz erreformaren ondorioak geratu daitezkeelako eta lan baldintzak hobetzen jarraitu.

Smurfit Kappa Nervion enpresa horren adibide garbi bat dugu. Aurten, 28 langilerengan eragina eduki zezakeen "Eten-durazko espeditorea" ekiditzea lortu dugu. Lan antolatua garatu dugu langileen arazoak eta beharrak mahai gainean jarriaz, bai asanblada eta bileren bidez. Honela lortu dugu produkzio jaitsiera zikloetan, soldata osoak mantendu direlarik, oraingo abagunean inoiz baino beharrezkoagoa den formazioa langileei ematea.

Bide beretik, Enpresa Hitzarmena sinatzea lortu dugu non, beste gaien artean, eskuratzeko ahalmena hobetzen da KPIaren gaitetiko igoerekin, mugatu egiten da lan erreformaren ezarpena ultraaktibitatearen gaian, hitzarmenaren deskuelgean, absentismoari loturiko kaleratzean, eta malgutasunean, besteak beste. Gainera, behin betiko enpleguak sustatzeko akordioei eusten diegu eta baita ordezkatze kontratuei buruzkoak ere.

Hau guztia posible izan da langileen babesa eta parte-hartzeari esker, finean beraiek izan dira ELAko delegatuei konfiantza eman dietenak bide-orri honetan lan egiteko. Babes itzel horrek bere isla izan zuen azken hauteskunde sindikaletan, ELA 13 delegatuetatik 9 lortu baitzituen. Honek enpresan ELAren proiektua indartzen du, hain zuzen plantilla osorearen lan baldintzak hobetzeko xedez.

Hau da jarraitu beharreko bidea: antolakuntza eta lan sindikala. Zentzu honetan, bide-orri honetatik oker bideraturiko edozein kritikak enpresariak bakarrik laguntzen ditu. Beraz, ELA langile guztiak animatu nahi ditu ahalegin honetan jarraitzeko, denon indarrak batzea baita enpresariari indarra kentzeko modu bakarra.

ELA Sindikatua, Gernika-Durangoko Hainbat Federazioa

## Euskaraz bizi herrixka globalean

## Globalizazioa

Oso urte gutxian, planetakoak bihurtu gara. McLuhanen iragarpen famatua orain ulertzen da, 50 urte geroago. Mundua herrixka bat da, lehen guztiz exotiko zitzaizkigun parajeak eta errealtateak orain hurbilekoak ditugu. Handitu egin da munduarekin partekatzen duguna, eta higitu berezkoaren esparrua.

## Identitatea

Aurreko joerak berak piztu du beste bat orekatzailerak: erabat uniforme izateari uko egin eta identitateari eustekoa. Eta hau akui-lu bihurtu da izaera gordetzen duten komunitateentzat, batez ere, berezko hizkuntza dutenentzat. Globalak ez diren hizkuntzak -hau da, ia guztiak- aldarrikatzen dira gero eta gehiago. Uholde globalari eusteko, norberarengandik eta norberaren hizkuntzan.

## Amaraura

Globalizarioaren tresna nagusia hedabide globalak izan dira, horiei esker bilakatu da herrixka lehen planeta zena. Sare laukidunak lotzen gaitu munduarekin, hurbilekoa eta urrunekoa maila berean jarrita. Aldiz, gure egunerokoa hurbilean gauzatzen da zati handian, oraindik. Sare laukidunetan baino, amaraunean: gu erdigunean, hurbilekoa ondoan, urrunekoa harago. Hedabideak behar hurbilekoa kontatzeko.

## Euskara

Euskaldunon berezko hizkuntza, mende luzez ahuldua batzuk eta besteek, azken hamarkadetan suspertu nahi duguna. Badu gaitasunik, ari da irabazten hiztunak eta esparruak, behar du bere komunitatearen nahia. Behar du euskalduna jabetzea euskarak nortasuna ematen diola munduan egoteko.

## Euskara herria

Euskararen herrian orain minoria da bere hiztunen komunitatea. Ez da bilakaera naturala izan, behartua baizik. Eta ez da derri-gorrezkoa, ez eta atzerazina ere. Kontua da eraginaren norabidea aldatzea eta alde jartzea, euskara bizi dadin. Hiztunen nahia behar da horretarako. Euskaldun bizi nahi sendoa eta konbentzimentu handia. Eta -zer esanik ez- aukera berdintasuna, baldintza egokiak, ahalmenaren bulkada...

## Euskara elkarteak

Komunitatearen nahiak sortu zituen, euskaraz bizitzeko esparruak behar zirelako. "Arrasate Euskaldun Dezagun" jarri zion bere buruari izena sortu zen lehenak. Ezin argiago. Euskaraz bizitzeko, herria euskaldundu. Arrakasta izan zuen asmakizunak, eta zientia bat elkarre sortu da harrezkero, beste horrenbeste herritan.

## Toki hedabideak

Denek ez zuten McLuhan ezagutuko, baina euskara elkarteek argi ikusi zuten amaraunaren premia. Gutaz eta hurbilekoaz jarduteko hedabideak, gure hizkuntzan. Informazio uholdearen barruan komunitate irauteko, euskaratik. Berrito arrakasta, eta dozenaka toki hedabide sortu ziren 90eko hamarkadan, erdaretan zeudenei nagusituz. Lehia irekian urrezko domina irabazi zuen hor euskarak. Ez ditu asko bitrinan.

## Batera

Herriz herriko elkarteak indartzeko sortu zen Topagunea duela 15 urte, eta toki komunikabideak bateratzeko eratu da TOKIKOM aurten. Batera hobeto eragiteko. Eta Kontseiluan ere helburu berekin ari gara. Euskara herrian gero eta indartsuagoa izan dadin euskararen nahia, euskaraz bizi nahia.

Hain zuzen horregatik deitzen dizugu abenduaren 1ean Donostiara joan gaitezen: aukera berdintasuna, baldintza egokiak eta nahikotasuna lortzeko, bagarela eta izaten jarraitu nahi dugula indarrez adierazteko. Herrixka globalean euskaraz bizi nahi dugulako.

Mikel Irizar eta Jasone Mendizabal Topaguneko presidentea eta zuzendaria

## Laguntzaileak:

**BFA**  
**DFB** Bizkaiko Foru Aldundia  
Kultura Saila

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

Kultura Sailak  
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza)

diruz lagundutakoa

**anboto**  
komunikabideak

Bixente Kapanaga, 9  
48215-Iurreta  
(Bizkaia)  
Tel.: 94 681 65 58  
Erredakzioa:  
94 623 25 23  
Publizitatea:  
94 621 79 02  
publi@anboto.org

2012ko azaroaren 23a  
10. urtea - 481 zk.

**Zuzendaria:**  
Jone Guenetxea.

**Erredakzio burua:**  
Joseba Derteano.

**Administrazio burua:**  
Itziar Belar.

**Administrazioa:** Miren Abasolo.

**Publizitatea:** Goretzi Alonso, Amaia Huarte, Itxaso Altuna.

**Erredakzioa:** Aitziber Basauri, Itsaso Esteban, Markel Onaindia, Amaia Ugalde, Ane Elordi.


**Maketazioa:**  
Ainhoa Arizmendiarieta.

**Zuzentzailea:** Goiatz Etxeita.

**Argazkilaria:** Kepa Aginako, Zaloa Fuertes.

Lege gordailua: BI-2268/01 ISSN: 1578-7028 Tirada: 10.150 ale

# 47. DURANGOKO EUSKAL LIBURU ETA DISKO AZOKA



*mestor basterrera*

2012KO ABENDUAREN 6TIK 9RA



## Landa eremua galtzen bada, paisaia eragina izango duela uste dute

Urkiola Landa Garapenak Durangaldeko paisaiari buruz antolatutako eztabaidan aukerak eta arriskuak identifikatu dituzte

**B**elaunaldi berrien erreleborik ezegoteak eta baserriak ez berritzeak landa eremuaren galera ekar dezakete. Eremu horretako biztanleek atera duten ondorio negatiboa da. Urkiola Landa Garapena elkarteak Durangaldeko baserri-paisaien inguruko hausnarketa egin du, eta parte-hartzaileek hainbat aurreikuspen egin dituzte. 2025 urtea erreferentzia legez hartuta, sortu ahal diren ondorio negatiboak eta positiboak irudikatu dituzte.

Baserritarrek euren jarduna utziz gero eta industriak eta azpiegiturek gora eginez

gero, landa eremua arriskuan legokeela uste dute. Eztabaidako parte-hartzaileen arabera, baserritarrek ingurunea zaintzeko ardura izan dute, eta oraindino ere badaukate –sastrakak kentzen, adibidez–. Horregatik, funtzio hori desagertuz gero, suteak gertatzeko arriskuak gora egingo lukeela uste dute. Baserritarrek euren jarduna uzteaz gainera, badago beste faktore bat parte-hartzaileak arduratuta dituenak: hiritik baserrira joandako biztanleen jarrera. Diotenez, eremua lo-leku bihurtzeko beldurra daukate. Horrek, baserritarren

arteko elkartasuna eta dinamismoa murriztea ekarriko luke. Esan dutenez, biztanle horietako batzuen eragina negatiboa izan dela baieztatu da, adibidez auzolanean ez dutelako parte hartu. Premiazkotzat jo dute era horretako ohiturak eta pentsaerak albat arinen aldatzea.

### Aukerak ere badaude

Landa-eremuaren joera negatiboaren beldur dira hausnarketako kideak, baina eboluzio positiboa izateko aukerak ere badaudela uste dute. Euren ondorioen arabera, legeak aldatzen badira, gazteak bertan bizitzen geratzeko erraztasunak lortuko dira. Gainera, herrigunetik baserrira doazen guttiak ez dute lo-leku legez soilik erabiltzen. Batzuek ortuak ipini dituzte, eta autokontsumoak balio positiboa ei du baserrian, baita paisaian ere. Bestalde, ondorioztatu dute lehenengo sektore ekonomikoa eta abereak direla paisaiarengan eragin handiena dutenak, eta sektore hori diruz lagundu behar dela adierazi dute.

Mendiak eta ondare arkitektoniko eta historikoa Durangaldeko paisaiaren berebiziko balioak direla esan dute. Horrek, turismorako aukerak ere sortuko ei lituzke.

Legeak aldatzen badira, gazteak bertan bizitzen geratzeko erraztasunak lortuko dira

Lehenengo sektore ekonomikoa diruz lagundu behar dela adierazi dute



@anbotokirola

# KIROLAK >

## Zaldibarren arku taldea sortu zutela 15 urte bete dira aurten

Domekan Euskadi eta Espainia mailako hainbat txapelketa jokatu dira, kiroldegian



Nagusietan, 20 bazkidek osatzen dute Zaldibar arku taldea; taldearen iazko argazki ofiziala irudian.

**H**amabost urte joan dira Zaldibar arku taldea sortu zutenetik. 1997an Carlos Olabarriagak Bilbon arku tiroaren gaineko ikastaro bat egin ostean, beste lagun batzuekin batera herrian talde bat sortzea erabaki zuen. Harrezkero, urtea joan eta urtea etorri, hain ezaguna ez den kirol mota hori sustatzen jardun dute nagusien zein gaztetxoaren artean.

Domekan arku tiroaren inguruko hiru txapelketa jokatu dituzte Zaldibarko kiroldegian, eta herritarrei dei egin diete bertaratu eta arku tiro jaurtiketa bertatik bertara ezagutze-

XV. San Andres Saria ere egingo dute. Tiralari guztiek parte hartuko dute herriko txapelketa horretan. Gainera, irabazleak sari berezia jasoko du, hain justu, arku taldeak 15. urteurrena ospatzeko, aurtengo aldirako beren beregi diseinatu duen trofeo bat. Zaldibarko elizako erretaularen izkina batean XII. mendeko arkulari bat agertzen da, eta irudi horretan oinarritutako garaikurra banatuko dute.

Gaur egun, 20 lagunek osatzen dute nagusien taldea. Arku tiroa ezagutarazi nahian, gaztetxoaren artean ikastaroak ematen hasi ziren orain hiru urte, eta gaur

egun, sei gaztetxo prest daude etorkizunean nagusien erreleboa hartzeko. Horien artean, 15 urte bete berri dituen Aitor del Hierro zaldibartarraren maila azpimarratu du Iñigo Gorritxategi arku tiro taldeko ordezkariak: "Arku tiroa gustatu egiten zaio, gogotsu dabil eta etorkizun handia du". Aurten Bizkaiko txapelketa irabazi du kadeteetan.

### Leku berri baten bila

Gaur egun, sasoi batean futbol zelaia zegoen ondoko lokaletan entrenatzen dute. Pista estaliko txapelketak prestatzeko, azpiegitura egokiak dituzte. Baina

aire zabaleko txapelketak prestatzeko leku berri baten bila dabilta. Oraingo lekuan, sasoi bateko futbol zelaian, erabilera mugatua dute, ingurutik bidegorria doalako. Gorritxategiren arabera Zaldibarretik Mallabiarako irteeran dagoen zelai baten erabilera negoziatzen ari dira jabe pribatu batekin.

Sortu zenetik hona, goi mailako hainbat arkulari izan dituzte. Denen gainetik, Lidia Cañete dago. Cañetek hainbat bider irabazi ditu Bizkaiko eta Euskadiko txapelketak. 2006an Espainiako Postal Liga Nazionala ere irabazi zuen. ■ J. Derteano

**Etzi, hiru txapelketa jokatu dituzte, 09:00etatik 13:30era**

ko. Hain zuzen, etzi hiru txapelketa jokatu dituzte 09:00etatik 13:30era. Lehenengo, Asturias, Errioxa eta beste hainbat lekutatik etorritako arkulariek Espainiako txapelketetara sailkatzeko puntu balioetsuak izango dituzte jokoan. Ondoren, arkulari euskaldunek Euskal Ligarako bigarren jardunaldia jokatu dute. Zaldibarkoaren ostean, Bermeoko azkena bakarrik faltako da Euska Liga amaitzeko. Txapelketa ofizial horiekin batera,



Zaldibarko arku taldearen talde argazkia, 2000. urtean.

## Txirrindularitza sustatzeko ekimena etzi, Otxandion

Otxandion txirrindularitza sustatu guran, mountain bike-ean egiteko ibilbidea antolatu du domekarako, Bizkaiko Txirrindularitza Federazioak. Ekimena eskola kiroleko adina duten gaztetxoei zuzenduta dago, eta gurasoekin batera parte hartu dezakete 8 kilometroko ibilbidean. Durango, Elorrio, Zaldibar eta beste hainbat herritako txirrindularitza eskolek parte hartuko dute; baita lurreta Emakumeen Birako txirrindulariek ere. Ibilbideari 10:30ean ekingo diote, plazan. ■ J. D.

## 320 kilora arteko sokatira finala jokatu dute Abadiñon

Zapatuan, 17:00etan, sokatira denboradiko lehenengo finala jokatu dute Zelaietako probalekuan. Goma gaineko lauko finalean (320 kilora artekoa) sei talde lehiatuko dira, tartean Abadiño A eta B. Honako hauek dira gainerako lau taldeak: Ibarra A eta B (Gipuzkoa), Sokarri (Bizkaia, Arrigorriaga) eta Ñapurrak (Lapurdi, Ezpeleta). Abadiñarrek txapela jantzea dute helburu.

Biharko finalaren ostean, lauko txapelketa bat faltako da: 300 kilora artekoa. Ondoren, urtariletik aurrera, zortziko txapelketei ekingo diete. ■ J. D.

## Lurretakok eta Elorriok derbia jokatu dute Eleizalden

Emakumeen Lehenengo erreregionalean derbia jokatu dute bihar, Elorriok eta lurretakok. Partidua Elorrioko Eleizalde futbol zelaian izango da, 16:00etatik aurrera.

Talde biak sailkapenaren erdian dabilta. Elorrio indartsu dabil etxean. Orain arte, Eleizalden hiru partidua irabazi dituzte eta bat galdu. Garaipen batzuk gol festagaz amaitu dira; esaterako, Orduña 6-1 menderatu zuten. lurretako sendo dabil etxetik kanpora; partidua bakarra galdu du. Gainerako hiru lehietan garaipen bi eta berdinketa bat erdietsi ditu. ■ J. D.

# Elorriok bere esku dauka bigarren fasera sailkatzea

Elorrio Parra Taberna rugby taldeak bihar irabazten badu, bigarren fasera sailkatuko da; osterantzean beste emaitzen mende legoke



Elorrio Parra Taberna rugby taldeko nagusien aurtengo argazki ofiziala.

**E**uskal ligako lehenengo fase gorabeheratsua arrakastagaz amaitzea, bere esku du Elorrio Parra Taberna rugby taldeak. Bihar, Iruñean jokatu dute, eta irabaziz gero, bigarren fasera sailkatuko dira, zortzi onenen artean. Galduz gero, Iruñeak aurreratu egingo du, eta Uribealdea Bren emaitzaren zain geratu beharko dute elorriarrek.

Azken jardunaldiaren faltan, hiru puntuko aldea dago Elorrio eta Uribealdearen artean. Dena esan behar bada, Uribealdeak oso gax dauka puntuak lortzea, Getxo B lider sendoaren aurka ibiliko delako. Baina Getxo B sailkatuta dago, ez du ezer jokotan eta lasai-lasai zelairatzea ez litzateke harriztekoa.

Elorriok behetik gorako bidea egin du lehenengo fase-

an. Kaskar hasi zirela dio Urdin Ugarte entrenatzaileak: "Hasiera petrala izan genuen. Entrenamenduetara ez ziren jokalaridena etortzen, eta zetozenekin ere ez zen iazko dinamika hori sortu". Baina partiduak jokatu ahala "sendotu egin gara, taldeari forma eman diogu".

**Iazko urtea errepikatu guran** laz, oso denboraldi ona egin zuten elorriarrek. Bigarren fasera sailkatu eta mailaz igotzeko eskubidea lortu zuten. Zoritxarrez, mailaz igotzeko ez da nahikoa aurrenekoen artean gertatzea. Federazioak ezarritako baldintza batzuk bete behar dira, gazte mailako talde bat izatea, esaterako. Elorriok ez ditu baldintza horiek betetzen, eta aurtengo ere ezingo lukete mailaz igo.

Federazioaren eskakizunak, betetzekotan, ondorio denekin bete behar direla uste du Ugartek. Esaterako, iaz Uribealdea mailaz igo zen, bigarren talde bat sortuta. Aurtengo, Uribealdea Bk ez du Elorrioren kontrako partidua jokatu, ez zutelako jokalaririk nahikorik.

Baina horiek denak aurreragoko kontuak dira. Orain, Iruñeari irabaztea da behinena. "Taldea horren aurka ondo moldatzen gara; ez dakit zer dela-eta, baina normalean ondo jokatzen dugu Iruñean". Igual, taldeak goiza elkarrekin ematen duelako da. Bihar ere denak batera joan eta Etxauri herrian bazkalduko dute. Kontzentrazio baten antzekoa izango da. Antza denez, etxetik urrun jokatzeak ere baditu bere abantailak. ■ J. D.

## ADITUAREN TXOKOA

Gotzon Gomez  
Errugbi entrenatzailea



## Munduko jokalaririk onena

Bizi garen gizarte honetan, badugu sailkatzeko eta puntuatzeko joera handia, eta sailkapen eta puntuaketa horien arabera nor den onena izendatzeko ohitura. Gizartean esan dut, baina batez ere, komunikabideetan islatzen da tradizio hau.

Sailkapenak egiteko orduan hainbat faktore izan beharko genituzke kontuan. Batetik, bozketa emateko arduradunak (adituak, kazetariak, entrenatzaileak...). Bestetik ebaluatu beharreko alderdiak: zenbat puntu edo zenbat gol sartu dituzten, irabazitako txapelketak, etab. Hautaketa modu horretako adibide garbiena futbol mundua dugu, Messi eta Ronaldorekin.

Nire ustez, benetan adierazgarriak diren arloak hartu beharko lirateke kontuan jokalaririk onena aukeratzeko orduan: zelaian zein aldagelan erakusten duten lidergoa, taldekideen joko hobetzeko dituzten dohainak, une kritikoa aurrera egiteko duten grina eta joera, kirolaren balioak zabaltzeko modua, zaleekin eta gazteekin duten harremana; eta ez bakarrik golak, saskiratzeak edo entseguak sartzeko gai diren.

Errugbia irizpide horien adibide garbia da. Azken urteetan munduko jokalaririk onenak legez izendatutako ena profila aztertuz gero, argi dago azken arlo hauek lehenetsi dituztela. 2009 eta 2010. urteetan Richie McCaw all blacks talde mitikoaren kapitainak irabazi zuen IRBk ematen duen saria, eta iaz Munduko Txapelketa irabazi ez arren, frantziar batek, Thierry Dusatoir-ek, eraman zuen. Jokalari horrek finalean entsegu lortu arren, erasoan barik defentsan ditu dohainik handienak, eta finalean bertan 22 tackle lortu zituen. Laster 2012. urteko hautagaiak izendatuko dituzte. Ikusi beharko da IRBkoek bide berdina jorratu duten edo errugbian ere izar mediatikoak lehenetsiko dituzten komunikabideen mesederako.

## Ipar Euskal Herriko hirurak kanporatu dituzte etxekoek

Gaur finalerdiak jokatu dira trinketean

Durangaldeak trinketean goi mailako ordezkariak dituela nabarmendu zen joan zen barikuan, Tornosolo Kopako final laurdenetan. Etxeko pilotariak Ipar Euskal Herriko hiru ordezkariak kanporatu zituzten.

Mikel Gonzalezek 40-22 menderatu zuen Jeannots eta Ander Antxiak ere erraz kanpo-

ratu zuen Bonetbelche: 40-23. Rober Uriartek gehiago sufritu behar izan zuen Lambert kanporatzeko: 40-34.

Gaur, 19:00etan, finalerdiak jokatu dituzte. Antxiak eta Uriartek abadiñarren arteko lehia jokatu dute. Gonzalezek Paxcal de Ezcurra izango du aurkari. ■ J. D.

## David Garcia durangarrak Bilboko herri krosa irabazi du



Durango Kirol Klubeko David Garcia durangarrak Bilboko herri krosa irabazi zuen joan zen asteburuan, 31.45eko denboragaz. Jon Salvador, Josu Amutio eta hirurek, elkarrekin egin zuten ia lasterketa osoa. Azken aurreko kilometroan durangarrak eritimoa bizitu eta bakarrik helmugaratu zen. Orain aste bi, laugarren amaitu zuen Behobia-Donostia lasterketa.

## Hiru segundogatik ez du hobetu Larizek Ariznabarretaren marka

Mugarra triatloi taldeko Iñigo Larizek Elgoibarko Karakateko igoera irabazi zuen joan zen asteburuan (28.20). 2011n Oier Ariznabarreta durangarrak ezarritako markatik hiru segundora geratu zen Lariz. Azaldu duenez, neguan mendiko eski travesietan lehiatuko da Euskadiko selekzioagaz.



## Durangaldea ordezkari barik geratu da Cafes Baquen

Cafes Baque pilota txapelketako finalerdietan ez da Durangaldeko ordezkariarik egongo. Eguaztenean Eneko Calleja iurretarrak galdu egin zuen Etxebarria gernikararren aurka (2-18). Finalerdiak datorren martitzenean jokatu dituzte Atxondon, 19:00etan. Kadeteetan, Arandia-Etxebarria eta Dario-Altuna izango dira partidubiak. Gazteetan, Ziarrustak Ortizen aurka jokatu du lehenengo, eta Erostarbek Atutxaren aurka gero. Finala azaroaren 30ean jokatu dute lurretan, 19:30ean. ■ J. D.



# Txirrindularitzan jarraitzeko babesle bila dabil Iñaki Lejarreta

Orbea Racing Team taldeak 2013an ez duela jarraituko jakinarazi diote batzarretan

Profesionalerako saltoa eman zuenetik talde bakarra izan du Iñaki Lejarretak (29 urte, Berriz). 2001tik hona Orbea Racing Teameko txirrindularia izan da. 2013an, ostera, taldeak ez duela jarraituko jakinarazi diote, eta oraintsu babesle bila hasi da, bakarka bada ere, elitean jarraitu ahal izateko.

Hasieran "etsita" sentitu zela adierazi du Lejarretak eta

Profesionalerako saltoa eman zuenetik talde bakarra izan du Iñaki Lejarretak (29 urte, Berriz). 2001tik hona Orbea Racing Teameko txirrindularia izan da. 2013an, ostera, taldeak ez duela jarraituko jakinarazi diote, eta oraintsu babesle bila hasi da, bakarka bada ere, elitean jarraitu ahal izateko.

Hasieran "etsita" sentitu zela adierazi du Lejarretak eta

"bizikleta uztea" ere pentsatu zuela. Orain, traba guztiei aurre egiteko adorea lortu eta elitean jarraitzeko ahal duen guztia egiteko prest dagoela dio.

Mountain bike-eko beste talde batzuei atea jotzea izan zen lehenengo urratsa. Baina Espainian, desagertuko den Orbeaz gainera, MTBko talde bakarra dago, egoitza Murtzian duen Wildwolf Trek Pro Racing

Team taldea, hain zuzen. Horiek dagoeneko itxita dute 2013ko taldea. Atzerrian ere hainbat ate jo ditu, baina alferrik. Izan ere, MTB talde bilatzea ez da errepideko talde batean bilatzea bezain erraza. Laguntzaile lana ez da hain beharrezkoa mountain bike lasterketetan, eta nahikoa dira maila oneko hiruzpalau txirrindulari denboraldiari aurre egiteko.



Orbea Racing Team taldean 12 urte eman ditu Iñaki Lejarreta berriztarrak.

MTBko beste talde batzuei atea jotzea izan zen lehen urratsa

Andoriz, beste aukera bat lantzen dabil. Egunotan babesle bila hasi da, modu indibidualean jarraitu ahal izateko. Munduko Kopa lehiatzeak gastu asko du, esaterako, bidaietan. Horregatik, gastu batzuei aurre egiteko babesle bat behar du. Gainera, etorkizunari begira, garrantzitsua da Lejarretarentzat Munduko Kopan aritzea, mendi bizikleta modalitateko erakusle horik onena delako.

Orbea taldean Julien Absalon eta Ruben Ruzafa txirrindulariak ere bazebiltzan. Absalonen BMC taldeagaz akordioa sinatuta du uda hasieratik. Ruben Ruzafa, aldiz, triatloietara itzuliko da. Bere sasoiaren mendiko triatloien munduko txapeldua izan zen. ■ J. D.

## Goi mailako mendizaleak Atxondoko mendi astean

Alex Txikon, Koldo Zubimendi eta Iker Iriondo mendizaleek hitzaldiak eskainiko dituzte

Atxondoko Asuntze mendi taldeak Mendi Astea antolatu du datorren asterako, eta berbaldiak eta mendi irteera bat presatu dituzte, besteak beste. Martitzenean, Alex Txikon mendizale lemoarrak berrir bisitatuko du Durangaldea. Joan zen astean Elorrioren egon ostean, mendizale emankor honen abenturak entzuteko bigarren aukera eskainiko dute. Lemoarrak Pakistango Gasherbrum mendira egindako espedizioari buruzko dokumentala eskainiko du.

Eguaztenean, Iker Iriondo andoaindarrak eta Koldo Zubimendi erandioarrak 2006an Broad Peak-era egindako espedizioa kontuak gogoratuko dituzte. Bizkaitarrak zortzimilako mendi tontorra (8.047) zapaltzea lortu zuen. Gipuzkoarra gailurretik metro gutxira geratu zen.

Barikuan, urteko batzar orokorra egingo du Asuntzek. Lun-

txa egongo da bertaraten direnentzat. Abenduaren 1ean, mendi irteera egingo dute Andasto eta Tellamendi tontorretara, Topetik irtenda. ■ J. D.

### DATAK

- Azaroaren 27an (19:00)**  
- Alex Txikonon hitzaldia: *Gorbeiatik Himalayara*
- Azaroaren 28an, (19:00)**  
- Iker Iriondo eta Koldo Zubimendiren hitzaldia: *Broad Peak*
- Azaroaren 30ean, (20:15)**  
- Asuntzeren urteko batzarra.
- Abenduaren 1ean, (09:00)**  
- Andasto eta Tellamendi tontorretara mendi irteera. Topeko aparkalekutik
- \* Hitzaldiak eta batzarra Atxondoko pleno aretoan izango dira

## Durangalde Racing Madrilen izango da

Durangalde Racing Elkarteko lau pilotu Madrigo rallyan ariko dira, asteburuan

Durangalde Racing Elkartek ordezkaritza zabala izango du Madrigo rallyan. Durangoko eskuderiako lau pilotu lehiatuko dira gaur eta bihar Espainiako rally txapelketarako puntuagarria den lasterketan.

Xabier Lujua pilotu bilbotarrak eta Jesus Estradak Fiat Abarth Punto EVO baten barruan egingo dituzte ibilbideko 566 kilometroak (hamar tartetan banatuta). Lujua eta Estrada Euskadiko Rally Txapelketako txapelak dira.

Gorka Eizmendi eta Haritz Olasagasti binomioak ere izan du aurten zer ospatua. Fiat

Lujua, Eizmendi, Lopez eta Alustiza pilotuak ibiliko dira

Abarth Punto EVO baten laguntzagaz, Abarth Punto EVO Kopa irabazi dute 2012an. Denboraldiak merezi duen moduko errematea ematen saiatuko dira Madrilen.

Garikoitz Lopez pilotua eta Gaizka Bengoa kopilotua Citroen Saxo VTSagaz ibiliko dira. Aurten Euskal Herri mailako Hankook Challenge-a irabazi dute, eta Madrilen beste erkidego batzuetako txapeldukin neurtuko dituzte indarrak.

Azkenik, Iñigo Alustizak eta Alaitz Urkiolak BMW M3 bat gidatuko dute Gr.A.Legend Rally mailan. Maila hori 80ko hamarkadako autoei zuzenduta dago.

Aurten, hirugarren aldia egingo du Madrigo Rallyak eta irteera puntua zein helmuga Jaramako zirkuituan egongo dira. Ehun parte-hartzaile inguru lehiatuko dira. ■ J. D.

## Agenda

### FUTBOLA

- OHOREZKO MAILA**
- Iurretako - Santurtzi**  
Zapatuan, 17:00etan, Larrakozelekin
- LEHENENGO ERREGIONALA**
- Zaldia - Uritarra**  
Zapatuan, 17:00etan, Solobarrian
- Berriz - Apurte B**  
Zapatuan, 17:00etan, Berrizburun
- BIGARREN ERREGIONALA**
- Ezkurdi - Lekeltio B**  
Zapatuan, 18:00etan, Arripausetan
- HIRUGARREN ERREGIONALA**
- Elorri B - San Francisco**  
Zapatuan, 18:00etan, Eleizalden
- LEHENENGO ERREGIONALA**
- Elorri - Iurretako**  
Zapatuan, 16:00etan, Eleizalden

### ARETO FUTBOLA

- HIRUGARREN MAILA**
- Mallabia - Internazional**  
Domekan, 17:00etan, Zaldibarko udal kiroldegian
- MAILA GORENA**
- Presion Break - Scallbur**  
Zapatuan, 17:15ean, Berrizburu kiroldegian
- Sasikoa B - Akelarre Bar Txopos**  
Zapatuan, 19:45ean, Landako kiroldegian
- LEHENENGO ERREGIONALA**
- Gu Lagunak - Freunde**  
Zapatuan, 15:30ean, Landako kiroldegian
- Elorrioko B - Sapuberri**  
Zapatuan, 18:00etan, Elorrioko udal kiroldegian
- BIGARREN ERREGIONALA**
- Mendibeltz - Elorrioko C**  
Zapatuan, 16:45ean, Landako kiroldegian

### SASKIBALOIA

- BIGARREN ERREGIONALA**
- Julza-Zaldia - Unamuno**  
Barikuan, 20:00etan, Zaldibarko kiroldegian

### ERRUGBIA

- SUKIA ERRUGBI ESKOLA**
- 10 urtez azpikoen erakustaldiak**  
Zapatuan, 10:30ean, Durangoko Arripausetan
- 12 eta 14 urtez azpikoen erakustaldiak**  
Zapatuan, 10:30ean, Elorrioko erugbi zelaietan
- GAZTEEN MAILA**
- DRT - Gaztedi**  
Zapatuan, 13:00etan, Arripausetan

### PILOTA

- OLAZAR TXAPELKETA**
- Lau t'erdian:**
- Agirre-Oronoz Binaka:**
- Ansotegi-Linzoain / Urbieta-Tolosa**  
Azaroaren 29an, 21:30ean, Zaldibarko pilotalekuan
- Lau t'erdian:**
- Dorronsoro-Olaetxea II Binaka:**
- Beltia-Galarza / Jaka-Peñas**  
Azaroaren 30ean, 18:30ean, Zaldibarko pilotalekuan

# INMOBILIARIAK >

**AMBOTO**  
INMOBILIARIA  
San Agustinalde, 4 - 1 ezk - 48200 DURANGO  
Tel.: 94 681 35 62 • iamfoto@euskalnet.net

**FU** AGENCIA INMOBILIARIA  
**Fernando Uribe**  
Barrenkalea 15, behe • Tel./Fax: 94 681 64 23  
48200 DURANGO • Bizkaia

**ISD** Inmobiliaria del Duranguesado  
Askatasun etorbidea, 10 • 48200 DURANGO  
Tel./Faxa: 94 681 66 66  
www.inmoduranguesado.com  
inmoduranguesado@gmail.com

**ETXETXO**  
G. INMOBILIARIA  
F.J. Zumarraga, 11  
Tel.: 94 681 40 49 • DURANGO  
www.inmoetxetxo.com

### ETXEBIZITZAK ALOKAIURUAN

#### DURANGO

• 2, 3 eta logela bakarreko hainbat etxebizitza alokairuan.

#### IURRETA

• Baserri zatia. Sukalde-jangela, logela eta komuna. Berogailua eta ur beroa. Ekonomikoa.

### ETXEBIZITZAK SALGAI

#### DURANGO

• SAN INAZIO AUZUNEA: 3 logela, 2 komun, sukuldea eskegitokiarekin eta egongela balkoiarekin. Etxe osoak kanpora ematen du. Garajea eta trastelekua. Igerilekuarekin.  
• Apartamentu berriak eraikitzen. 119.000€-tik AURRERA. EZ GALDU AUKERA HAU.  
• SAN FAUSTO: 3 logela, komuna, sukuldea eta egongela. 90.000€.  
• 2 logelako apartamentua. Egongela, komuna, sukuldea eta despentsa. 114.000€. Berriztatuko.  
• ERDIALDEAN: 2 logela, 2 komun, egongela eta sukuldea. Berria eta guztiz jantzia. Garajea eta trastelekua.  
• ASKATASUN ETORBIDEA: 3 logela, 2 komun, sukuldea balkoiarekin eta egongela. Garajea eta trastelekua.  
• FRANZISKO IBARRA: 3 logela, sukuldea, office-a, 2 komun eta egongela. Garajea eta ganbara.  
• ERDIALDEAN: 123 m2. Etxe osoak kanpora ematen du. Berriztatuko. Zonalde onean kokatua.  
• ATIKO BERRIA ESTREINATZEKO. 2 logela, 2 komun eta sukulde amerikarra eta egongela. Garaje itxia eta terraza izugarriak.  
• BARRENKALE: Duplexak. Eraikuntza berria. Berehalako banaketa. 2 logela, 2 komun, egongela eta sukulde amerikarra.

#### LEKEITIO

• 3 logela, komuna, sukuldea eta egongela terrazarekin. Garajea. Auzune pribatua. Igerilekua eta frontoia.

#### ABADIÑO

• ITURRITXO: Logela bakarra, sukulde amerikarra, egongela, komuna eta eskegitokia. Ganbara, garaje bikoitza eta trastelekua.  
• 2 logela, 2 komun, sukulde-jangela, egongela eta eskegitokia. Garajea, trastelekua eta ganbara. Ikusgarria.

#### ATXONDO

• 2 logela, komuna, sukuldea balkoiarekin, egongela eta bainugela. Etxe osoak kanpora ematen du. Berria ematen du.

#### ZALDIBAR

• 3 logela, komuna, sukuldea eta egongela balkoiarekin. Guztiz berriztatua. Trastelekua.

### LUR SAILAK SALGAI

#### IURRETA

• 5 hektareako lursaila. Abeletxe bat egiteko aukera dago.

#### MATIENA-ABADIÑO

• 2.000 m2-ko lursaila. Laua eta fruitarbolekin.

#### OLETA (OTXANDIO)

• 2.300 m2. Fruta-arbolak eta abeletxe ditu. Erreka ondoan kokatuta dagoen lursaila.

#### DURANGO

• Bibizitzako etxea eraikitzeko lursaila. Proiektuarekin.

#### EUBA

• 3000 m2 eta 3.455 m2-ko lursailak. 2 lurzati bakoitzean bifamiliarra eraikitzeko aukerarekin.

#### ABADIÑO

• Bifamiliarra eraikitzeko 1.100 m2-ko lursaila salgai.

#### ZORNOTZA

• LARREA: 27.000 m2-ko lursaila.

### ETXEBIZITZAK SALGAI

• ABADIÑO: Txalet bifamiliarra lursailarekin salgai.  
• DURANGO-ERRETENTXU: Adosatua salgai, bifamiliarrak eta unifamiliarrak.  
• BERNAGOITIA: Zornotza. Unifamiliarra lursailarekin.  
• OTXANDIO: Adosatua. Eraikuntza berriak. 174.500€-tik aurrera.  
ETXEBIZITZAK SALGAI  
• ANDRA MARI: Halla, sukuldea, jangela, egongela, 3/4 logela, 2 komun eta egongelatxo.  
• ANTISO EZTEGIZ: Halla, egongela, sukuldea, 2 logela eta komuna.  
• ANTISO EZTEGIZ: Halla, sukuldea, egongela-jangela, 3 logela eta 2 komun. Ganbara eta garajea. Guztiz berriztatua. Estreinatuko.  
• ASTOLA BIDEA: Halla, sukuldea, egongela, 2 logela eta komuna. Balkoia.  
• ALLUITZ: Halla, sukuldea, egongela-jangela, 4 logela eta 2 komun. Terraza. Garaje aeta trastelekua.  
• BARRENKALEA: Halla, sukuldea, egongela, 2/3 logela eta komuna.  
• BERNARDO GABIOLA: Halla, sukuldea, egongela, 2 logela eta komuna. Guztiz berriztatua.  
• BERNARDO GABIOLA: Halla, sukuldea, egongela, 3 logela, komuna eta despentsa.  
• ERROTARITXUENA: Estreinatuko. Halla, sukulde jantzia, logela bakarra edo 2 logela, egongela, 2 komun eta eskegitokia. Terraza. Garajea aukeran.  
• GALLANDA: Estreinatuko. Halla, sukuldea, egongela, logela bakarra edo 3 logela, komun bakarra edo 2 komun eta balkoia. Ganbara eta garajea.  
• GALLANDA: Halla, sukuldea, egongela-jangela, 3 logela eta 2 komun. Terraza. Garaje aeta trastelekua.  
• EZKURDI: Halla, egongela-jangela, sukulde jantzia, 3/4 logela eta 2 komun.  
• F.J.de ZUMARRAGA: Halla, 2 egongela, sukuldea, 3 logela eta komuna.  
• F.J.de ZUMARRAGA: Halla, egongela, sukuldea, 3 logela eta komuna. Balkoia.  
• GASTEIZ BIDEA: Halla, egongela, 3 logela, sukuldea eta komuna. Despentsa eta balkoia. Garajea aukeran.  
• INTXAURRONDO: Halla, egongela, sukuldea, logela eta komuna. Trastelekua.  
• IPARRAGIRRE: Duplexa. Halla, sukuldea, egongela-jangela, 4 logela, 2 komun eta terraza. 2 kotxerentzako garajea eta trastelekua.  
• JUAN DE ITZIAR: Halla, egongela, sukuldea, 2/3 edo 4 logela eta komuna. 2 despentsa/trasteleku eta sotoa. Lursailarekin.  
• KALEBARRIA: Halla, egongela, sukuldea, 3 logela eta komuna. Despentsa. (Guztiz berriztuta).  
• KOMENTU KALEA: Halla, egongela-jangela, sukuldea, 2 logela horma-armairuekin eta komuna. Ganbara. (Guztiz berriztuta eta erdi jantzia).  
• KOMENTU KALEA: Halla, sukuldea, egongela-jantokia, 3/4 logela eta komuna. Ganbara.  
• LAUBIDETA: Halla, sukulde-jantokia, egongela, 2 logela eta komuna. Terraza.  
• MONTEBIDEO: Halla, egongela-jangela, sukuldea, 5 logela eta 3 komun. Terraza. Ganbara.  
• MURUETATORRE: Halla, sukuldea, eskegitokia, egongela-jangela, 3 logela eta 2 komun. Balkoia. Ganbara eta garajea.  
• PLATERUEN PLAZA: Halla, egongela, jangela, sukulde jantzia, 4 logela eta 2 komun. Garajea eta trastelekua.  
• TXATXIENA: Halla, sukuldea, egongela-jangela, 3 logela eta despentsa. Balkoia. Ganbara eta garajea.  
• SAN IGNAZIO: Halla, sukuldea, egongela-jangela, 3 logela eta komuna. Balkoia.  
• SAN FAUSTO: Halla, sukulde-jangela, 2 logela eta komuna.  
• SASIKOA: Halla, sukuldea, egongela-jangela, 3 logela eta 2 komun. Ganbara eta garajea.  
• TABIRA: Halla, egongela-jangela, logela, komuna eta eskegitokia.  
• UNDA-TORRE: Halla, sukuldea, 3 logela, egongela eta komuna.  
• URKO KALEA: Halla, sukuldea, egongela-jangela, 2 logela eta 2 komun. 2 terraza. Ganbara eta garajea.  
• ABADIÑO: Iturritxo kalea. Halla, sukuldea, egongela, 2 logela eta 2 komun. Eskegitokia. Garajea eta trastelekua.

### ETXEBIZITZAK SALGAI

• ASKATASUN ETORBIDEA: Promozio berriak. 1,2,3 eta 4 logelakoak.  
- Logela bakarra, garajea, ganbara 185.000€ + bez  
- 2 logela garajea eta ganbararekin 233.000€ + bez  
- 3 logela garajea eta ganbararekin 350.000€ + bez  
• EZKURDI: Estreinatuko. Viviendas de Vizcaya. 3 logela. Hainbat orientazio eta gainazal. Azkeneko etxebizitzak salgai. 268.000€-tik aurrera. Garajea eta ganbara.  
• MARTXOAREN 8KO: azken etxebizitza estreinatuko, beharpen handiagaz obrak likidatzeko. 2 logela. Garaje itxia.  
• MARTXOAREN 8KO: erdi berria. 93 m2. Atikoa. 3 logela. 75 m2-ko terraza. Ikuspegi ederrak.  
• MARTXOAREN 8KO: erdi berria. Beheko solairua 90m2-ko terrazarekin. 2 logela. Garaje itxia.  
• ASKATASUN ETORBIDEA: 108m2. Erdi berria. 3 logela, egongela, sukuldea guztiz jantzia, 2 komun, garajea eta ganbara. Balkoi oso handia etxebizitza guztian zehar.  
• ASKATASUN ETORBIDEA: 83 m2. 3 logela, egongela, sukuldea balkoiarekin eta 2 komun. Garajea eta ganbara. Erdi berria.  
• ASKATASUN ETORBIDEA: 74 m2. EZINHOBEOA. ETXE OSOAK KANPORA JOTZEN DU. 2 logela. Garajea eta ganbara.  
• ASKATASUN ETORBIDEA: 80 m2. 3 logela, egongela, sukuldea eta komuna. 2 balkoi. Ganbara.  
• ALLUITZ-ASKATASUN: 76m2. 2 logela, egongela, sukuldea eta 2 komun. Garajea eta ganbara.  
• ZABALE: 99m2. 4 logela, egongela, sukuldea eta eskegitokia. Balkoia eta garajea. Trastelekua aukeran.  
• ZABALE: 90 m2. 3 logela, egongela, sukuldea, eskegitokia eta balkoia. Garajea eta ganbara. Etxe osoak kanpora jo du. Zatoz ikustera!  
• SAN ROKE: 80 m2. 3 logela, egongela eta sukulde jantzia baloiarekin. Beste balkoi bat hegoaldera. Ganbara handia. Guztiz berriztatua.  
• HERRIKO GUDARIEN: 140 m2. 3 logela. 3 terraza. 2 komun. Garajea. Azkeneko solairua. Eguzkitsua. Ikuspegi politak.  
• ANDRA MARI: 180 m2. 4 logela, 2 komun, bainugela, sukuldea eta jangela. Ganbara eta garajea.  
• EZKURDI: 100 m2. 3 logela, egongela, sukuldea eta 2 komun. Ganbara. Prezio ona.  
• EZKURDI: 4 logela, egongela, sukulde jantzia eta 2 komun. Balkoia.  
• PLATERUEN PLAZA: 97 m2. 3 logela, egongela, sukuldea eta 2 komun. Garajea, trastelekua eta ganbara. Etxe osoak kanpora jotzen du.  
• MURUETA TORRE: (Viviendas de Vizcaya) 83 m2. 3 logela, egongela eta sukuldea eskegitokiarekin. Balkoia. Garajea eta trastelekua. Etxe osoak kanpora jotzen du.  
• MURUETA TORRE: 120 m2. 4 logela. Garajea eta trastelekua. Balkoia.  
• LANDAKO: 80 m2. 2 logela, egongela balkoiarekin, 2 komun, sukuldea eta jangela. Ganbara eta garajea.  
• LANDAKO: 134 m2. 3 logela, egongela, sukuldea, 2 komun. Balkoi handia. Ganbara. Garajea aukeran.  
• TABIRA: erdi berria. 50m2. Logela, egongela, sukulde jantzia, komuna, balkoia eta ganbara.  
• TABIRA: 90 m2. 3 logela, egongela, sukuldea eta komuna. Eguzkitsua eta ikuspegi ederrekoa.  
• ALLUITZ: erdi berria. Logela, egongela, sukuldea eta komuna. Balkoia. Ganbara. Bizitzaren sartzeko moduan.  
• MADALENA: erdi berria. 50 m2. Logela, egongela, sukulde jantzia eta komuna. Eskegitokia.  
• MADALENA: 96 m2. Aukera. Saltzeko premia lekualdatzegatik. 4 logela, egongela, sukuldea eta 2 komun. 2 balkoi. Ganbara.  
• ARKOTZA: 4 logela, egongela, sukulde jantzia eta 2 komun. Balkoia. Ganbara.  
• KURUTZIAGA: 80 m2. 2 logela, egongela, sukuldea eta komuna. Balkoi handia. Ikuspegi ederrak.  
• SASIKOA: 85 m2. 3 logela, egongela, sukulde jantzia eta 2 komun. Garajea eta ganbara. Ikuspegi polita eta eguzkitsua.

**Aipatutako etxebizitez gain,  
Durangalde osoan etxebizitzen aukera  
zabala dugu, 66.000€-tik aurrera.  
www.inmoduranguesado.com**

### ETXEBIZITZAK SALGAI

• ERDIGUNEAN: 2 logela, komuna eta egongela. Bizitzaren sartzeko prest. 126.000€.  
• ANBOTO: 3 logela, sukuldea eta egongela. Balkoia. 146.000€.  
• MONTEBIDEO: 3 logela eta egongela. Igogailua. Ganbara. 140.000€.  
• IURRETA: aukera. 3 logela, egongela, sukulde handia eta terraza. Igogailua eta berogailua. Bizitzaren sartzeko prest. 156.300€.  
• ABADIÑO: (Etxezapia). 2 logela eta 2 komun. Terraza. Garajea eta trastelekua.  
• BASERRIA: 421 m2. 7.500 m2-ko lursailarekin. 390.000€.  
• SAN IGNAZIO: garaje itxia. 21.000€.  
• ABADIÑO: aukeran. 2 logela, 2 komun eta egongela. 65 m2-ko terraza. Trastelekua eta garajea.  
• IURRETA (Dantzari): 80 m2. 3 logela eta egongela. Berogailua. Igogailua.  
• JUAN DE ITZIAR: 4 logela, egongela eta sukuldea. Etxe osoak kanpora jo du. Eguzkitsua. Trasteleku handia.  
• MURUETA TORRE: azkeneko pisua. 3 logela eta 2 komun. Terraza. Ganbara eta garajea. Ikuspegi ederra.  
• ONITURRI: Erdi berria. 80 m2. Eguzkitsua. 1. mailako materialak. Ganbara eta 2 autorentzako garajea.  
• ZABALE: 3 logela, 2 komun eta egongela terrazarekin. Ganbara eta garajea. Eguzkitsua.  
• SASIKOA (Trenbide): 90 m2. 3 logela, 2 komun eta egongela terrazarekin. Ganbara eta garajea. Eguzkitsua.  
• TABIRA: erdi-berria. Apartamentua. Terraza handia. Garaje itxia.  
• SAN ROKE: 80 m2. 3 logela eta sukulde handia. 2 terraza. Ganbara. Eguzkitsua.  
• MURUETA TORRE: 95 m2. 3 logela eta 2 komun. Terraza. Garajea aukeran. 206.000€.  
• IURRETA: Maspe. 70 m2. 2 logela. 120.000€.  
• SAN IGNAZIO: 85 m2. 3 logela. Terraza handia. Garajea eta igerilekua.  
• INTXAURRONDO: Erdi berria. 85 m2. Eguzkitsua. Garaje itxia.  
• ERDIALDEAN: Duplexa. 3 logela, 2 komun eta 30 m2-ko egongela. Balkoia. Trastelekua. 160.000€.  
• SAN FAUSTO: 4 logela eta egongela. Despentsa. Eguzkitsua. 110.000€.  
• F.J.de ZUMARRAGA: 100 m2. 3 logela eta egongela. Terraza. Berriztatua.  
• JESUITAK: 3 logela, 2 komun, sukuldea eskegitokiarekin eta egongela terrazarekin. Ganbara. Garajea. Eguzkitsua. Berriztatua.  
• IURRETA: 3 logela eta egongela. Balkoia. 66.000€.  
• ZEHARMENDIETA: 3 logela. 2 solairua. Berogailua. Etxe osoak kanpora ematen du. 155.000€.  
• EZKURDI: 175 m2. 4 logela eta 4 komun. Trastelekua. Bizitzaren sartzeko moduan. Ikuspegiekin.  
• MATIENA: 3 logela, egongela eta sukuldea. Berriztuta. 170.980€.  
• ASKATASUN ETORBIDEA: 90m2. 3 logela. 2 bainugela. Ganbara eta garajea.  
• KOMENTUKALEA: apartamentua. Argitsua.  
• FRANZISKO IBARRA: 6 urteko aintzinasuna. 2 logela eta 2 komun. Ganbara. Garajea.  
• MAÑARIA: 110 m2. 3 logela eta egongela handia. Terraza. Etxe osoak kanpora ematen du. Eguzkitsua. 156.000€.  
• ALLUITZ: erdi berria. 2 logela. Ganbara eta garajea.  
• EZKURDI: 70 m2. Etxebizitza edo bulegoa. 180.000€. Alokairuan. 400€  
• ARTEKALE: Berria. 80 m2. 2 logela. Polita.  
• MADALENA: 2 logelako atikoa. Terraza. 130.000€.  
• LANDAKO: 5º solairua. 90 m2. 2 terraza. Ganbara eta garajea. Polita. Altuera ona. 312.500€.  
• DURANGO: txaleta. 400 m2. Garajea. Lorategia.  
• BERRIZ: Abadiño-Gerediaga. 275 m2. 3 solairu. 8.800 m2-ko lursaila eta ortuarekin.

### ERAIKUNTZA BERRIA

• ZALDIBAR: Garaje aeta trastelekuarekin. Logela eta komuna: 105.100€. 2 logela eta 2 komun. Terraza: 142.000€. 3 logela eta 2 komun. Terraza: 180.000€. %100-eko finantziatzea. 450€/hileko.

# anboto.iragarkilaburak.com

- 1 HIGIEZINAK
- 2 TEKNOLOGIA
- 3 LANA/NEGOZIOAK
- 4 DENETARIK
- 5 IBILGAILUAK
- 6 HARREMANAK
- 7 AISIA/KIROLA
- 8 FAMILIA/ETXEA

## NORBANAKOEN IRAGARKIAK

**Interneten eta paperean, doan:** Erregistratu [www.anboto.iragarkilaburak.com](http://www.anboto.iragarkilaburak.com) webgunean eta jarri zure iragarkia (paperean argitaratu aukerari eman behar zaio eta bertan anboto aukeratu) edo bidali mezua: [anboto@anboto.org](mailto:anboto@anboto.org). Nahiago baduzu deitu 94-623 25 23.

**Paperean, ordainduta:** Iragarki laburretatik bereiztuta eta lauki batean nabarmenduta. Hainbat prezio eta neurri aukeran. Kontsultatu 94-621 79 02 telefonoan.



### ETXEBIZITZAK SALGAI

#### ELORRIO

- Erref. 406: 65 m2-ko pisua. 3 logela, komuna, egongela eta sukaldea. 164.800€.
- Erref. 405: 75 m2-ko pisua. 3 logela, komuna, egongela eta sukaldea. Prezioa kontsultatu.
- Eraikuntza osoa salgai berrizatzeko.
- Lokalak salgai toki paregabean, dimentsioak; 121 m2, 101m2, 62,5 m2 eta 105 m2.
- Apartamentu berriak. 60 m2. 2 logela eta komuna. 135.000€. Aukera paregabea.
- Erref. 356: 53 m2-ko apartamentua. Logela, komuna eta sukalde-egongela. 190.000€.
- Erref. 246: 130 m2-ko pisua. 4 logela, egongela, sukaldea eta 2 komun. Garajea. Kontsultatu.
- Labakua kalean garajea salgai; 22.500€.
- Erref. 407: 65m2. 2 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Aukera paregabea.
- Erref. 448: 65 m2-ko pisua. 2 logela eta 2 komun. Berria, estreinatzeko. 179.000€.
- Lursailak: Unifamiliarra eta bifamiliarra eraikitzeko aukera.
- Erref. 419: 78,25m2-ko pisua proiektuan. 2 logela, 2 komun, sukaldea eta egongela.
- Erref. 420: 65m2-ko lokala etxebizitza edo lokal komertzial gisa jartzeko aukeragaz. 90.000€.
- Erref. 327: 75 m2-ko pisua. 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela. 155.000€

#### DURANGO

- Erref. 349: 62 m2-ko pisua. 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela. 216.000€.
- Erref. 347: 90m2-ko pisua. 3 logela, 2 komun, sukaldea eta egongela. 294.000€.
- Erref. 362: 40 m2-ko apartamentua. Logela, komuna, sukaldea eta egongela. 185.000€.
- Erref. 450: Txaleta leku paregabean. 340 m2. 6 logela eta 4 komun. Kontsultatu.

#### ABADIÑO

- Erref. 372: 83 m2-ko pisua. 3 logela, 2 komun, egongela eta sukaldea. 246.000€.
- Erref. 325: 90 m2-ko pisua. 3 logela, 2komun, egongela eta sukaldea. Kontsultatu.
- Etxebizitza berriak. 1,2 eta 3 logelakoak. 161.400€ -tik gora.
- Txaleta. 4 logela, 2 komun, bainugela, sukaldea eta egongela. Berria dago. 570.000€.

#### BERRIZ

- Erref. 393: 80 m2-ko pisua. 2 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Balkoia. 162.000€.
- Erref. 373: 68 m2-ko pisua. 3 logela, komuna, egongela eta sukaldea. Aukera paregabea.
- Erref. 401: 65 m2-ko pisu erdi berria. 2 logela, komuna, egongela eta sukaldea. 204.000€.
- Lursailak: 4 lursail salgai eraikitzeko aukerarekin.
- 60 m2. 2 logela, komuna eta egongela berria. 155.000€.

#### ZALDIBAR

- BANKUKO PISU BERRIAK SALGAI. KONTSULTATU.
- Erref. 391: 70 m2-ko pisua. 3 logela, komuna, egongela eta sukaldea. 125.000€.
- Erref. 392: 75 m2. 3 logela, komuna, egongela eta sukaldea. 150.000€.
- 15 m2-ko garaje irekia. 12.500€.
- Erref. 378: 90 m2-ko pisua. 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela. 158.000€.
- Erref. 390: 3 logela, komuna, egongela eta sukaldea. Garajea. 162.000€.
- Berrizatzeko dagoen apartamentua. 70.000€.

### ALOKAIRUAN

- ELORRIO: 3 solairuko pisu berria. 3 logela eta 2 komun. 700€
- ELORRIO: 2 logela eta 2 komun. Altxariekin. 650€.
- ELORRIO: Apartamentua. Logela eta 2 komun. 550€.
- ELORRIO: 3 logela eta komuna. Altxariekin. 550€.
- ELORRIO: Estreinatzeko. 2 logela eta komuna. Altxariekin. 550€.

### Higiezinak ETXEBIZITZAK SALDU

**Asturias.** 2 pisuko etxea eta lur saila salgai. 649 40 26 22

**Alegia.** Etxeak 8 urte ditu eta oso egoera onean dago. Sukaldea eta bi komunak guztiz ekipatuta, hirur logela eta egongela ditu. Tel.: 609787551

**Cuzcurrieta.** 3 logela, garaea eta igerilekua. Prezioa: 100.000euro. 692 99 43 51

**Almeria.** 80m2. 2 logela handi, komuna, balkoia, sukaldea. Igerilekua. Hondartzatik 50 metroara. 110.000euro. 608-19 73 17

**Berriz.** Olakuetan, etxe argitsu eta bista ederrekin. 3 logela handi, balkoia egongela eta sukaldea. 2 komun. Igogailua eta ganbara. 685724690 / 675712369

**Berriz.** 3 logela, 2 komun, sukalde berriztua, 2 balkoi, egongela handia, ganbara eta garaje itxia. Tel: 647 77 73 92.

**Durango.** 86 m2. Murueta Torre 7n. 2 logela, 2 komun, sukaldea (eskegitokia), ganbara eta garajea. 270.000 euro. 688 64 26 43 (Jaione).

**Durango.** Askatasun etorbidean. 83m2 erabilgarri, 3 logela, 2 komun, 2 garaje handi, trasteroa, igogailua garajeraino. 652 75 54 46

**Elorrio.** Duplex etxebizitza, 78 m2 erabilgarri. Egongela nasaia, logela bi eta bainugela bi. Errekakale, 10 2gn solairua. Tel: 605 72 29 45

**Elorrio.** Erdigunean estreinatutako etxea salgai. 77m2, 3 logela, 2 bainu eta garajea, altzariakin. 230.000euro. 634 45 72 01

**Iurreta.** Pisu bat salgai Arriaurrean. 66.000 euro. Tel.: 685 72 80 42.

